

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
EH Bai, bigarren indarra;
sinesgaitza dirudi **IÑAKI ALTUNA > 11**

ZINEMAGILEEN ARTEAN:
Isilean gordetakoak,
hamargarrenez Bilbora **> 4**

2021eko ekainaren 26a | XV. urtea • 728. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



**GAZTEAK, EURAK
EURENTZAT ERAGITEN**



**Isilean gordetakoak hamar urtetan
Bilboko zinemetara eraman ditu
karabanak** 04

**Italiako Vermicinoko kasua, lotsa
telebistan** 08

**Tokian tokitik osotasunera,
gazteak eurak eurentzat
eragiten** 12

Meritua, diskriminazioa... 16

**Bakarrizketak pantaila txikian:
bai ala ez?** 18

**Analisia: Arrainak ura bezala, guk
kultura** 22

Sukaldeko wikiliburua 26

Sarean 29

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Zergatik etorri zarete gure
txertoak hartzera?
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Hurbiltzeko distantziak
- 11 **Iñaki Altuna:** EH Bai, bigarren
indarra; sinesgaitza dirudi
- 17 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Arantxa Urbe:** Nork ikasten du
ikasgelan?
- 21 **Mirari Martiarena Iraola:**
Historia
- 25 **Miren Azkarate Badiola:** Agur
goxoak
- 25 **Antton Izagirre:** Mendeku txiki
bat
- 30 **Ainhua Yera Gil:** Koloretako
biomarkagailu digitalak



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Zergatik etorri zarete gure txertoak hartzera?

Gure nazioaren jabe direla sinetsita horren arabera jokatzeko dute bi estatuen kudeatzaileek ez dute aukerarik galdu, arrapaladan, txertaketa prozesua abantzu birkonkistarako auzi bilakatzeko. Gutxitan aipatuta, ordea, liberalismoaren ikur berri gisa hartua den Emmanuel Macronen eta sozialdemokraziak Europa hegoaldean bizi duen gainbeherari murrua ezartzearen buruzagiaren altuera aitortu zaion Pedro Sanchezen arteko antzekotasuna.

Eliseoko eta Moncloako komunikazio estrategiek iturri beretik edan dute eta, batzuetan, hizkuntzaren aldetik ere hainbat diskurtso itzulpen automatikoa erabilia aletu dituztela erran daiteke.

Euskal Herria irudikatzen duen egitasmo historikoa soilik ez baizik eta engaiamendu kolektiboa ere lainotzeko bidean Madrilek zein Parisek bertze hainbat afertan baliatzen dituzten bitartekariak joko eremutik at utzi dituzte. Parisetik hasita eta Euskal Herriko azkeneko herriraino, aginte katea bakarra. Txertoen jauna bilakatutik, Macronek erabaki du noiz, nola, non eta zer esan txertaketari buruz. Frantziartasunaren gorazarre egiteko baliatu duen osasun kanpaina berak irudikatzen duen botere zentralizatua izan da une oro ikusgai. Demokraziak eta banaketa administratiboak berak aurreikusten dituzten bertze estai guztiak ezabatuak izan dira. Erregea eta herria, hori izan da komunikazio lerroa. Ekintza politikoaren gaineko xehetasunetan sartzea ez du merezi gehiegi, garaia agintzen baitu, omen, hori bigarren mailako aferen bilduman sartzea.

Heldu den urtean Eliseoko alokairua berritzeko esperantzaz hauteskundeak ditu Macronek. Bestalde, txertaketa kanpaina arrakastatsua, esku batean, eta Bruselako diru funtsak, bestean; karta onak baditu, antza, Moncloatik partida banatzen duen Sanchezek. Udan gobernu

berrosatuko duela diote, baina hauteskunde egutegiarekin jokatzeko aukera baliatuko duen ikusteke dago.

Frantziar zentralismoak erraz jarri dio Macroni jakobinismo 5.0 plantan ematea, pandemiak irudikatzen dituen premiak argudiatuta. 1978an bestelako joko arau bat ezarri zuten, lurralde antolaketari begira, espainiar Estatuan, baina desmuntaketa aspalditik hasi zen. Lehenik «Loapa»ren bidez eta handik aurrera Auzitegi Konstituzionalean auzitan emanez Iruñeko eta Gasteizko parlamentuen erabakiak. Denontzako kafeak badu, hori bai, bertsio digitala: lehendakariak edozein presidente autonomikoren plano subsidiario berean kokatzen dituzten Skype bidezko bilerak.

Niri txertoa eman didate. “Merci, Macron” ez nauzu, ordea, abesten entzungo. Zu heldu zara Lapurdira. Ma-

Txerto-kontrabandistek ez badute egiten, kazetariok ausartuko al gara galdetzera zergatik alde batean txertoak ematen dituzten bitartean bestean aitzakiak banatzen dituzten aiseago ez egiteko?

drildar hark lehen egin omen zuen balentria errepikatzen. Zure udako plana nire semearena baino coolagoa delakoan. Lapurtar izanik berak egun batzuk itxaron behar du txertoa hartzeko. Gasteizko arduradunek deus ez jakitea ez nau harritzen, *fakez* beteriko informazioa hauspotzea larriagoa iruditzen zait. Osasun sailburuak txertaketa horien homologazioak sor zezakeen ustezko arazoari heldu zion, eta LABiren koordinatzaileak hainbat hedabidek emandako sasi informazioa ahoskatu zuen, gezurrak barne. Ez dakite, eta ez dute disimulua gordetzen. Gu, kazetariok, tarteka espektakulazioari muzin eginez ausartuko gara galdetzera zergatik alde batean txertoak dauden eta bestean aitzakiak? •

ZINEMAGILEEN ARTEAN

Isilean gordetakoak hamar urtez Bilboko zinematara eraman ditu karabanak

 **KULTURA /** Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Aljeriatik Frantziara joan ziren ihesi Aicha eta Mabrouk 1950eko hamarkadan, Erdi Aroko itxura gordetzen zuen Thiers herrixkara. 62 urtez ezkontide izan ostean banandu ziren 2016an. 80 urte baino gehiago zamatzten dituzte egun bizkarrean, eta beraien istorioak, bizipenak eta errealitatea, ziur aski beste horrenbeste familia exiliatuenak bezalatsu, isiltasunez gorde izan ditu banandutako bikoteak; harik eta bilobak, Lina Soualemek, zimur bilakatutako zauri horietan murgildutakoan ikusitakoa film batean erakustea erabaki zuen arte.

“Leur Algerie”, Soualemek zuzendutako lehenengo film dokumentala Bilboko Alondegian egon da ikusgai orain gutxi, herri honi sarri ezezagunak zaizkion errealitateei leku egitea itu duen Zinemagileen Artean zine karabanaren hamargarren edizioako kartelean.

Hamargarrenez egin du egonaldia Bilbon Zinemagileen Artean nazioarteko zine karabanak, 2012tik urtero bezala, Bilbo aukeratu baitzuen atsedeen eta sormen leku; eta hamargarrenez heldu dira Euskal Herrira herrialde ezberdinetako bost emakume zinemagile nork bere lana erakustera.

Zinemagileen Artean Emakumeek egindako Zinemaren 10. Karabana maiatzaren 31tik ekainaren 4ra izan zen Bilboko Alondegian eta Lina Soualem frantsesaren “Leur Algerie”-rekin batera, beste lau emakumeek egindako filmek osatu zuten zikloaren kartela, Egiptoko Doaa el-Adl artistaren diseinuko walkiria jainkosak lagun: “Khartoum offside” (Marwa Zein saudiarabiarrare-

na), “Meu querido supermercado” –Tali Yankelevich brasildarrarena, supermerkatu bateko langileen errealitateari buruzkoa–, “Tiny souls” –Dina Naser jordaniarrarena; Dokufest jaialdian saritutako lanak Jordaniako errefuxiatu esparru bateko hormen barruan bizitzen den 9 urteko neskato baten bizitza kontatzen du– eta “Mare” –Andrea Štaka suitzarrarena; aldaketak eta ezagutzen ez dituen aldagai orok kitzikatzen duten Mareizeneko emakumeari buruzko istorioa–.

Karabanak bi emanaldi eskaini zituen egunero, 16.30ean bata eta 19.30ean bestea, eta urtero bezala, bigarren saioan zuzendariekin eztabaidak antolatu zituzten, ikusleekin hartu-emana sortzea bilatuz.

Horrekin batera, Kairon eta Bilbon burututako emakumeentzako zine tailer parte-hartzaileetan ekoiztutako lau film labur ere eman ziren: “The flower of Maryam” eta “Mama, I want to tell you something”, Kairon egindako kreaio dokumentalaren tailerrekoak; “Ma-

nos, pies, agua y alguna calabaza”, emakume iraultzaileen-tzako bideo tailerrean Bilbon egindakoa eta “Zentzumen asaldatuak”, Barakaldon egindako emakumeentzako bideo tailer parte-hartzaileko emaitza.

Halaber, Lina Soualem zuzendariak tailer honetako batean parte hartu zuen “Leur Algerie” pelikularen inguruan aholkuak bilatu eta ikus-entzunezkoa hobetzeko.

Askotariko botereek (zinema komertzialak edo komunikabideek kasu) estalitako edo desitxuratutako kontakizunak, bazterrekotzat hartzen diren horiek, protagonisten eskutik Bilbora ekartzea da emakumeen zine karabana honen asmoa.

Eta bertan eskaintzen diren pelikulek, modu batera edo bestera, zikloaren itu hori konpartitzen dute. «Begirada estigma bat izan daiteke. Gutxiesgarria izan daiteke. Izan ere, etorkinak edo errefuxiatuak masa gisa deskribatzen dira beti, ez dago ez pertsonalizaziorik ez konplexutasunik. Gure istorioei buruz geure hitzekin hitz egiteko modu bat da», nabarmendu du Lina Soualem “Leur Algerie” pelikularen egileak.

EGIPTON ERROAK

Euskal Herrian Zinemagileen Artean izenarekin ezagutzen den nazioarteko zine karabanak Egipton du jatorria eta Amal Ramsis bertako zinemagileak hauspotu zuen –“You come from far away”, “The trace of the Butterfly”, “Life” edo “Forbidden” lanen egilea, besteak beste–.

Karabana sortzearen hipotesia 2005ean iritsi zen Ramsisengana, Kuban berak zuzendutako “Only dreams”

Zinemagileen Artean karabanaren 8. edizioako solasaldi bat Bilbon. KCD



filma Zinema Pobreko Nazio-arteke Jaialdian proiektatzen ari zela. «Konturatu nintzen nirea zela jaialdiko dokumental arabiar bakarra eta konturatu nintzen, baita ere, gauza asko konpartitzen dutela Latinoamerikak eta mundu arabiarrek, baita zine munduan ere. Baina gure zinea ez zen beraiegana iristen, beraiena gurera iristen ez zen bezala. Ez genuen inolako harremanik», esplikatu du zinema zuzendaria.

Kezka horretatik abiatuta, ideia bat izan zuen, orduan, Amal Ramsisek. Mundu arabiarreko eta Latinoamerikako emakumeek egindako pelikula aukeratu eta Zinema Arabiar eta Iberoamerikarraren Karabana sortu zuen 2008an. Hasierako asmoa zen, Ramsisek dioenez, urtero data zehatz batean aukeratutako pelikula Kairon proiektatzea eta, urtean zehar, karabanaren bitartez mundu arabiarreko eta Latinoamerikako herrialdeeta-

Ramsis: «2018an lege bat atera zen Egipton: edozein jaialdi egiteko zortzi ministerioren baimena behar genuen. Herrialdeko kultur jarduerak kontrolatzeko modu bat zen»

Askotariko botereek estalitako edo desitxuratutako kontakizunak protagonisten eskutik Bilbora ekartzea da Zinemagileen Artean karabanaren asmoa

ra zenbait pelikula eramatea, azpitoluen laguntzarekin.

Izan ere, Ramsisek esplikatu du ordura arte herrialde arabiarretako eta Latinoamerikako filmek Europatik pasatu behar zutela halabeharrez, soilik ingelesezko edo frantsesezko azpitoluekin funtzionatzen baitzuten.

2012an Zinemagileen Artean Emakumeek egindako Zinema Karabana Bilbora iritsi zen lehendabizikoz, KDC (Kultura, Communication, Desarrollo) GKEaren eta Klaketa Árabe Ramsisek sortutako ekoiztetxe egiptoarraren eskutik eta, ur-

Ezkerrean, Amal Ramsis, Zinemagileen Artean karabanaren sortzaile eta zine zuzendaria. Eskuinean, Bilbon egin zen lehenengo karabanaren kartela zineman. KCD

tebete beranduago, Zinema Arabiar eta Iberoamerikarra Karabanak Kairoko Emakumeek Egindako Zinemaren Festivala izena hartu zuen. Gutxika indarra hartu eta Egiptoko hiriburuan kalitatezko zine jaialdi bezala egonkortu zen.

Hala, hasieran 15 pelikula ematen zituzten urrian egin ohi den zinemaldian, eta egun 60 inguru eskaintzen dituzte bost sala ezberdinetan.

Amal Ramsisek bultzatutako nazioarteke zinemaldiak, hala ere, ez du ibilbide erraza izan 2008. urtean karabana gisa sortu zenetik gaur egunera. «2018an lege berri bat atera zen Egipton: edozein jaialdi egiteko zortzi ministerioren baimena behar genuen derri gorrez, eta diru asko bankuan; herrialdeko kultura jarduerak kontrolatzeko modu bat zen. Horregatik gelditu genuen jaialdia 2018an, baina tailerrekin jarraitu genuen eta karabanak herrialdeetan bidaia-tzen jarraitu zuen», kontatu

du Ramsisek, ekimenaren sortzaileak.

Hala, orain lau urte, zinemaldia mundu arabiarreko beste toki batzuetara mugitu zuten karabana modura, Egiptoko Gobernuak ez baitzuen onartzen atzerriko injerentziarik herrialdeko kulturaren. Paradoxikoki, kalteak kalte, covid-19aren pandemiak ekarri zuen zentsurari ihes egiteko bidea. Karabana Kairora itzuli zen online formatuan, eta eskaintza zabaltzea lortu dute kulturarentzako urte zail honetan. Programa berri bat sortu dute eta, horren bitartez, hilero sa-rean pelikula bat eman eta zuzendariarekin debatea eskaintzen dute, doan.

BEGIRADAK

«Komunikabideak ikusten badituzu, European oinarritzen den zinema mota ikusten baduzu, beti dute emakume arabiarrek oso modu estereotipatuan aurkezten dituen begirada bat: sumiso bezala,





Lina Soualem «Leur
Algerie» dokumentalaren
zuzendaria, Zinemagileen
Artean zikloaren 10.
edizioan.
KCD

salbatzeko beste norbait behar balute bezala. Inoiz ez gaituzte zinemagile moduan identifikatu. Hain zuzen ere, karabananaren helburua zinemaren bidez begirada estereotipatuak haustea da. Bizi dugun errealtatea konplexua da, ez Mendebaldeko komunikabideetan agertzen dena bezain sinplea. Baina guk ere, mundu arabiarrean, Mendebaldeko edo Latinoamerikako emakumeengana begirada estereotipatuak ditugu. Horrekin ere hautsi nahi dugu, eta gauza asko konpartitzen ditugula erakutsi, uste baino askoz gehiago», esan du Amal Ramsisek.

Aipatutako ituearekin batera, emakume zinemagileen artean espazio konpartitu bat sortzea ere badu asmo ekimenak, saretzeko eta elkarlanean aritzeko abagunea ematea.

Eta bide orri sendo horiekin, finantzazio gutxirekin baina oraindik gainditzeko dauden erronkei gogoz helduta, ari da Zinemagileen Artean karabana Kairon eta nazioartean begiradak argitzen.

Atzera begiratuta, Ramsisek dio 2008an ekimena aurkeztu zutenean arrotza egin zitzaiola jende askori; «oso gauza arraroa zen» dio, baina, egun, emakume zinemagileek bultzatutako proiektuak erruz ugaritu direla segurtatu du. «Hori da proiektu honen emaitza. Atzera begiratu eta hainbeste emakume ikusten ditut...»

INTIMOTIK KOLEKTIBORA

Jatorriz frantsesa da Lina Soualem, aita ere hala du eta ama palestinarra. Familiak, halere, Aicha eta Mabrouken erbestealdiko oinazeak pairatzen ditu, aitaren gurasoenak. Lina Soualemek «shock» baten

Soualem: «Munduaren ikuspegi konplexuagoa eraiki eta ahotsak ikusarazten lagundu nahi duen jende askorekin konektatzeko aukera ematen dit [karabanak]»

Emakume zinemagileen artean espazio konpartitu bat sortzea ere badu asmo ekimenak, saretzeko eta elkarlanean aritzeko abagunea ematea

gisara bizi zuen 2016an aitona-amonak banantzea eta areago kezkatu zuen momentu horretan konturatzeak ezer gutxi zekiela bere aitaren gurasoen bizitzaz. «Konturatu nintzen ez nekiela ezer bikote gisa zuten istorio intimoez, eta ez nekiela ezer Frantziara iritsi ziren emigratzaile algeriar gisa zuten historiaz: nola bizi izan zuten erbestea, nola bizi izan zuten frantziar kolonizazioa Algerian eta, bereziki, zergatik ez ziguten inoiz kontatu beren historia, zergatik mantendu zuten hainbeste isiltasun istorio horien inguruan. Horrela hasi nuen filma eta horrela hasi zen nire bilaketa. Galdera ugari sortu ziren isiltasun hori nondik datorren eta zer ezkututzen duen ulertzeko», esplikatu du zuzendaria.

Galdera horien erantzunak eta isiltasunetik kontatzeko ziztuztenak aitona eta amona grabatuz lortu zituen, eta emaitzak arrakasta izan du, gainera: Cinemed jaialdian saritu zuten dokumentala.

Pertsonala da «Leur Algerie» filmak kontatzen duen istorioa, baina badu kolektibotik ere, erbestea gai nagusi izanik, hainbatek topatzen baitu Lina Soualemen lanean ezagun zaizkion doluak eta hauek datozen belaunaldietan zartatzen dituzten arrakalak.

Bilobak aitona eta amonarekin izandako elkarrizketak azalera ekartzen ditu hamarkada luzez barrutik eramandako traumak eta zauriak. Begien bistara, belaunaldi helduenek eskatzen duten premiarekin, barruak ez ditzan jan eta egurastu daitezen: kontatu daitezen.

«Pelikulak nitaz hitz egiten du, nire aitona eta nire amonaz, aitaz, baina bere historiaz

gehiago jakin nahi duen edozein bilobaz ere hitz egiten du, baita erbesteko trauma bizi izan zuten eta beren historia transmititu ezin izan zuten aitona-amonez ere. Belaunaldien arteko transmisio hutsune horietaz hitz egiten du. Gaur egun, hutsune horiek betetzeko eta gure historia hobeto ulertzeko beharra eta borondatea dago aurrera egin ahal izateko. Garrantzitsua da istorio hauek kontatzea, desgertzen ari diren belaunaldiak dira, eta kontatzen ez baditugu, galdu egin daitezke», agertu du dokumentalaren zuzendaria.

Koronabirusaren kariaz aforoa murriztagoa izan bazen ere, Alondegiko Golem Zinemak bero hartu zuen zinemagile frantsesaren dokumentala. Emozioz bizi zuen egonaldia Soualemek, areago pandemiaren garaiotan, aukera gutxi izan baititu 2020an dokumentala bukatu zuenetik egun arte bere pelikula zinemetan eman eta esperientzia publikoarekin konpartitzeko. Izan ere, Zinemagileen Artean karabanak aukera ematen du pelikula ikusi ez ezik zuzendariekin solastatzeko.

«Munduaren ikuspegi konplexuagoa eraiki eta ahotsak ikusarazten lagundu nahi duen jende askorekin konektatzeko aukera ematen dit –esan du Soualemek zine karabananaren inguruan–. Herrialde desberdinetako filmak eta zuzendariak daude, eta kultura trukatzeko eta jendea sentsibilizatzen laguntzen du, ondo ezagutzen ez dituzten edo komunikabideen bidez bakarrik ikusten dituzten gaiak baitira askotan, sarri estigmatizatzaileak. Niretzat aukera izugarria da. Amal Ramsisen lana oso garrantzitsua da, eta ahal den

guztia egin behar da horrelako ekimenak bultzatzeko».

HAMAR URTE BILBON

Juan Carlos Vazquez KCD gobernu kanpoko erakundearen zuzendariak EHUren Udako Ikastaroen bitartez ezagutu zuen Amal Ramsis, 2010ean, Udaberri Arabiarra lehertze zegoela, KCDk lan lerro nagusi duen Zinema Ikusezina zinemaldia martxan jarri osteko urtean.

Kultura, Komunikazio eta Garapenerako topaketak ari zen bultzatzen orduan Vazquezek zuzendutako erakundea, eta gai horien inguruan eztabaidatzeko pertsona aproposaren bila ari zirela egin zuten topo Alexandriakoarekin. Ramsisek “Forbidden” filmatu berria zuen garai haietan, 2011n Egiptoko iraultza hasi aurretik Kairon gertatzen ari ziren errealitateak eta orduan debekatuta zeuden egoerak filmatuz osatutako pelikula dokumentala.

Ramsisek laguntza eskatu zion KCDko taldeari pelikularen kolorea zuzentzeko, eta orduan hasi zen gaur arte mantendu duten lankidetzaren harremana. Kairoko zinemaldiaren ingurukoak kontatu zizkien egiptoarrak GKEkoei, eta hauek festibala diruz laguntzeko irismenik ez zutenez, Ramsis kontratatu zuten zinema eta komunikazioaren arloko formakuntza tailerrak eman zitzaizkien, berak «biziraun zezan lagundu eta horrela zinemaldia egiten jarraitzeko aukera izan zezan», Vazquezek azaldu duenez.

Lankidetzaren hori sakonduz, Ramsisen karabana Bilbora ekartzea erabaki zuen nazioartean hezkuntza eta komunikazio sozialaren arloan lan egin duen erakundeak. «KCDk

esperientzia handia zuen Latinoamerikako gizarte komunikatzaileekin, eta interes handia sortzen zigun Sahara inguruko eta Saharaz hegoaldeko Afrikan horrelako komunikazioak sortzeak. Amalena ikaragarria iruditzen zitzaidan, mundu arabiarrekin klaxe asko dagoelako. Denborarekin, mundu arabiarrekoa ez ezik nazioarteko karabana izateraino zabaltzen zuten ekimena. Gaur egun oso garrantzitsua da pertsonak ezagutzeari, gure gobernuak dituzten politikei eta asmoari haratago. Urrezko aukera iruditzen zitzaigun orduan», agertu du zuzendariak.

KCDk antolatzen duen Zinema Ikusezina jaialdi ospetsuak ez du begiratzen pelikulek saririk jaso duten edo ez, zinemaldi garrantzitsuetan eman dituzten ala ez. Zinemagileen Artean karabanaren, berriz, «beste modu bateko ikusgaitasuna» bilatzen dute, nolabait kristalezko sabaia pixka bat bada ere apurtzea lortu duten emakumeen pelikulak ekarri. «Emakume hauek nazioarteko zinemaldietara eramane dituzte beren pelikulak, eta hori oso zaila da», zehaztu du Juan Carlos Vazquezek.

Zinemagintzan profesionalki aritzen ez diren emakumeentzat badute, ordea, toki bat gordeta jaialdian. Kairon nola, tailerrak egiten dituzte Bilbon ere, batzuk zine munduaren inguruan gehiago jakin nahi duten emakumeei zuzendutakoak eta besteak «askoz profesionalagoak», Vazquezek dioen bezala, espezialisten aholkuak bilatzen dituzten zinemagileendako.

Lan hori guztia, alabaina, formatuz aldatu behar izan zuten Zinemagileen Artean

Vazquez: «Baztertu egin dugu [karabana] online egitea aurrez aurre egiteko, nahiz eta publikoa galdu, zineak kolektiboa izan behar duela uste dugulako»

Zinemagileen Artean zikloan proiektatzen duten emakumeek kristalezko sabaia apur bat bada ere apurtzea lortu dute eta hainbat zinemalditan eman dituzte beraien lanak

Bilboko karabanaren 9. edizioan, koronabirusaren pandemiak hala behartuta. Online egin zuten zikloa osorik, eta horrek abantaila handi batzuk ekarri zituen: ikusle kopurua ia hamar aldiz biderkatu zuten 2020an.

Baina Vazquezek uste du ikusle kopuruak baino pisu gehiago duela zineak kolektiboki gozatu eta hausnartzeak: «Herrialde arabiarretan online karabanaren aldeko apustua egin nahi dugu, errazagoa iruditzen zaigulako zenbait herrialdetako oztopo burokrati-

koei iskin egiteko, baina hemen baztertu egin dugu online egitea aurrez aurre egiteko, nahiz eta publikoa galdu. Zineak etxean kontsumitzeko beste jarduerak bat bihurtzeko arrisku larrian dagoela uste dugulako, eta zineak kolektiboa izan behar duela uste dugu».

Zine kolektiboaren jaia eta han-hemengo emakumeen ikusgaitasuna aldarrikatu ditu Vazquezek. Baita karabanak lortutakoa ere: «Normalean existitzen den baina ikusten ez den zerbaitek zirkulatzea lortu dugu».

Baina urtero-urtero, hamarraldi batez, egindako lan eskeragari egin zaion aitortza eskasa ere aipatu nahi izan du KCDko zuzendariak. Edizio berezi honetara, aurrekoetan bezalatsu, komunikabiderik ez dela agertu salatu du. Korrontearen aurka doan zinearen ajeak, agian, edo emakumeenak. Edo haienak salbu, beste guztienak.

Juan Carlos Vazquez, KCD erakundearen zuzendaria.
KCD



VERMICINO, LOTSA TELEBISTAN

1981eko ekainean, Alfredo umea putzu batean erori zen, eta haren erreskate saiakera «reality show» bihurtu zen

Vermicino, Italia, 1981eko ekainaren 13a: handik aurrera dena aldatuko zen, telebistan eta batez ere gizartean. Handik aurrera lotsari neurria galduko zitzaion. Handik aurrera heriotza bat, zuzeneko emaldi batean, tantaka-tantaka, normala bihurtuko zen. Eta biktimaren izena, Alfredo, hain zuzen ere *Alfredino*, betirako geratuko zen gure artean.

AGRO ROMANO

Vermicino Erromako auzo bat da; erdialdetik autoz 20 minutura dago, trafikoaren arabera, noski: Frascati herrian ere zabalitzen da. Erroma oso-oso han-

ITALIA / Alessandro Ruta

Inork ez zuen ezagutzen Vermicino («Vermixino» ahoskatzen da), Italian, 1981eko ekainera arte. Gaur egun, aldiz, denok ezagutzen dugu: garai hartan jaiotzeko zeudenek ere bai. Leku hori, kasu hori, nire unibertsitate garaian ikasi genuen, Kazetaritza eta Komunikabide ikasketetan.

dia da, postaletan Koliseoa edo Fontana di Trevi edo Done Petri plaza agertzen dira normalean, baina landaguneak ere badauzka Italiako hiriburuak: Agro Romano. Han jendeak batez ere nekazaritzan egiten du lan.

Vermicinon bizi zen Rampi familia, baserri batean: aita, ama, bi semeak, aitona eta amona. Inguruko zelaietan ibiltzen ziren

denak, arratsaldero; udan, beti bezala, egunak luzatu egiten dira eta buelta bat emateko aprobetxatu ohi da. Baina Alfredok, 6 urteko semeak, ez zuen gaintzeko senideekin jarraitu nahi izan, baizik eta etxera itzuli. Baimena eskatu zien gurasoei eta gero bakarrik joan zen atzera bere baserrirantz.

20.00etan edo, familia guztia itzuli zen etxera baina Alfredo, Alfredino, ez zegoen bertan. Ama, aita eta besteak haren bila hasi ziren, 22.00ak arte, Polizia-ekin eta lagun eta boluntarioekin. Umea desagertuta zegoen eta amamari baserritik gertu putzu bat eraiki zutela etorri zitzaion burua: «Ea bertan dagoen», iradoki zien poliziei. Eta halaxe izan zen, Alfredo han

erori zen: 60 metroko putzu artesiari batean. Eta hala ere, haren arnasa entzuten zen.

Baina, putzu hauek oso-oso estuak dira, zentimetro gutxi batzuetakoak. Alfredok, horrez gain, bihotza ez zuen guztiz osasuntsu. Modu horretan pasatu zen lehen gaua, 1981eko ekainaren 10ean. Salbatzaileek, momentuz, ez zekiten zer egin.


SPADOLINI

1981a urte oso berezia izan zen Italian. Talde armatuen erasoak (Brigada Gorrienak batez ere), batetik; bestetik, mafiak ere jozten zuen; Aita Santuaren kontrako atentatua Done Petri plazan, maiatzaren 13an... Sekulako krisi eta eskandaluak zeuden: alegia, Gobernuan, boterean zegoen alderdiak, Kristau Demokraziak, arazo dezente zituen. Esate baterako, logia masoniko bat zela eta: Propaganda 2, edo P2.

Epaila batzuek Gobernu erdia P2-an zegoela aurkitu zuten, eta logia hori guztiz legez kanpo zegoela. Kazetariak, industria gizonak, zerbitzu sekretuak, parlamentariak, bankariak: P2 «Estatuaren barruan zegoen estatu bat zen». Eta Estatuaren kontra aritzen zen.

1981eko ekainean nabarmena zen ezinezkoa zela krisi hori konpontzea. Alfredo Rampi erortzen zen bitartean, handik 15-20 kilometrorra, Parlamentuan, gobernu berri bat prest zegoen boterea hartzeko. Arnaldo Forlani lehen ministroak dimisioa eman zuen eta Sandro Pertini Errepublikako presidentek «iraultza» egitea erabaki zuen. Hori bai, legearen barruan, Konstituzioaren barruan. Izan ere, 1945etik aurrera Italiako lehen ministroak, etenik gabe, Kristau Demokrazia alderdiak izan ziren (Aldo Moro, Amintore Fanfani edo Giulio

Alfredo Rampi edo «Alfredino», senideek deitzen zioten moduan, eta putzura erori zeneko erreskate lanak.
FACEBOOK



Andreotti, adibidez), baina alderdiarentzat egoera larria zen une horretan. Horrela, Pertinik Giovanni Spadolini jarri zuen lehen ministro gisa.


Zer-nolako pertsonaia zen Spadolini: Florentziakoa, aberatsa, kazetari ohia, historialaria, fededuna, tipo oso diskretua eta oso lodia. Zurrumurruek aipatzen zuten homosexuala zela; karikaturetan biluzik eta zakil oso txikiarekin irudikatzen zuten «Spadolone», Alderdi Errepublikanoaren idazkari zen gizona. Normalean, alderdi honek bozen %3 baino ez zuen lortzen hauteskundeetan.

Kristau Demokraziaren kontroletik kanpo zegoen aurreneko lehen ministroa zen: benetako momentu historiko bat. Baina ez Italiako telebistaren arabera.

PERTINI, EDONON

Goizeko bilera, erredakzioan, ostegunean: kazetariak tentsioz beteta. «Zer daukagu?», «Politika», «Beste berririk ez?», «Eskandaluak», «Beste zeozer?», «Ba, ezer ez, kirola ere geldirik dago». Eta bat-batean tipo batek altxatu zuen ahotsa: «Nire lagun batek esan dit Vermicinon, hemendik gertu, ume bat putzu batean erori dela eta bera salbatzeko saiakera egiten ari direla». Argi bat piztu zen erredakzio arduradunaren buruan: «Ba, joan gaitezke bertara, ea lortzen dugun momentu aproposa grabatzea. Goazen, kamerarekin!». Baliteke ideia interesgarria izatea hura, apurtxo bat egunerokotasunaren monotonía mozteko. Emaizta, zoritxarrez, oso txarra bihurtuko zen.

Azken batean erraza zen Erromako erdialdetik (han dauka Raik, Italiako Telebistak, erredakzioa) Vermicinora joatea. Bestela, adibidez, Dolomitetan izango balitz, askoz



deserosoagoa izango litzake. Behin bertaratutakoan, zirkua hasi zen. Telebistak dena eman zuen zuzenean, aurreikusitako programazioa hankaz gora jarritz. Une oro Alfredino, une oro Vermicinotik, umearen amarekin, edo aitarekin, adituekin; eta bitartean hainbat eta hainbat pertsona, milaka lagun, putzurantz gerturatzen: ur saltzaileak, ikusleak, parte-hartzaileak. Ezinbesteko ikuskizuna baitzen hura.

Italia guztia ari zen Alfredinoren tragedia ikusten, telebista bidez. Salbatzaileek ezin zuten

Italia guztia ari zen Alfredinoren tragedia ikusten, telebista bidez. Salbatzaileek ezin zuten lasaitasunez lanik egin, bestelako «adituak» agertzen zirelako edo kazetariei erantzun behar zirelako

Telebistak dena eman zuen zuzenean. Une oro Alfredino, une oro Vermicinotik, umearen amarekin, edo aitarekin...

Ezkerrean, sei urteko umea erori zen putzutik ateratzeko saiakera. Ondoan, haren omenez jarritako oroitarria. FACEBOOK



lasaitasunez lanik egin, bestelako «adituak» agertzen zirelako edo kazetariei erantzun behar zirelako. Denek lagundu nahi zuten. Gizon argalak, nanoak, bihurrikariak baita magoak ere prest zeuden zuloan sartzeko, ahalik eta azkarren, baina une berean Alfredino gero eta beherago jaisten ari zen. Beti zuzenean, dena zuzenean, pantailatik, bi egunetan zehar.

Gogoratu behar dugu garai hartan ez zela existitzen telebista pribaturik. Telebista ikusi nahi izanez gero, ez zegoen Rai ez beste ezer. Horregatik, audientziak goia jo zuen.

Eta Alfredinoren kasuan audientzia are eta gorago joango zen Sandro Pertini Vermicinon agertu zenean, ostiral arratsaldean. Italiako Errepublikako presidenteak zer egin nahi zuen bertan? Parte hartu? Lagundu? Egon, besterik ez, ikusle moduan?

Pertini («Un partigiano come presidente», abesten zuen Toto Cutugno «L'Italiano», bere kantarik famatuenean) oso «presentzialista» izan zen, baina

behin bertan egonda, telebistak ere geratu beharko zuen. Presidenteak Alfredorekin hitz egin zuen, baina umea gero eta larriago zegoen, bere ahotsa putzua bezain estua baitzen. «Amatxo, amatxo», errepikatzen zuen Alfredinok; eta ama, Franca, noski, negar batean.

Pertiniren ondoan, berriro, milaka pertsona. Etxean milioika begi zeuden dena kontrolatzen eta, aldi berean, sufritzen. Haurraren gain iristen zen zirkuitu laburra beteta zegoen. Espeleologoak tunel paralelo bat egiten saiatu ziren. Ezinezkoa zen, ordea, umea salbatzea: putzu hauek halakoak dira, heriotza tranpa. Larunbat goizean, ekainaren 13an, haren ahotsa entzuten ez zenez, mikrofono bat sartu zuten zuloan eta ez zuten arnasarik sumatu.

Alfredino Rampi telebistan hil zen, zuzeneko programa batean. Umeak ez zuen protagonista izan nahi, noski, eta ez zen konturatu, zorionez. Aldiz, une berean, «Minaren telebista» jaio zen, edo lehen reality show-a. «The Truman Show» filmean moduan, behin bukatuta jendeak zera galdetzen zuenean: «Ba, orain zer egingo dugu?».

Lotsagarria eta izugarria izan zen istorio hau, botaka egiteko modukoa; guretzat orri beltz bat izan da ordutik. Ikusleek Raira deitzen zuten, irudiak ez kentzeko eta beste pelikularik ez jartzeko eskatuz, umearen berri izan nahi zutelako.

Analista askok uste dute Vermicinokoa «distrakzio handiko arma» izan zela. Arazo asko zituena Italiak; beraz, hobeto beste edozeri edo edozeini buruz hitz egitea, gai erabat desberdin bati buruz, jendeak pentsatu ez zezan. Egia da handik aurrera dena aldatuko zela. Italia guztiak jakingo du Vermicino non dagoen eta izen hori, Alfredino.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Hurbiltzeko distantziak



Eremu pertsonala inork inbaditu ezin duen lurralde intimoa da eta norberak berea dauka. GAUR8

Eremu pertsonala inork inbaditu edo bere egin ezin duen lurralde pribatu, intimo eta eskusiboa da. Osagai fisikoaz gain, beste estimulu batzuen inbasioarekin ere badu zerikusia, hala nola zaratarekin, beste batzuek transmititzen dizkiguten emozioekin, gehiegizko informazioarekin edo gure bakardade edo intimitate uneetako etenaldi etengabeekin.

Pertsonek espazio pertsonal segurua behar dugu babestuta eta bideratuta sentitu eta estresa murrizteko. Sarritan esaten da munduan zehar tornado gisa doazen pertsonak daudela, besteen espazioak inbaditzen, eskubideak zapaltzen eta pribatutasunak urratzen. Espazio pertsonalak ez dio soilik erreferentzia egiten besteen presentzia fisikoari dagokionez bakoitzak onartzen duen distantziari, non besteen ahotsa, arnasa edo gorputzaren be-

roa deserosoa eta are mehatxagarria gertatzen zaigun. Espazio pertsonala edozein estimulazio psikosensorialen aurrean behar ditugun mugei ere badagokio. Hau da, altzariak, dekorazioa, argiztapen falta edo ingurune jakin bateko usaina estres iturri ere izan daitezke. Aldi berean, norberarentzat denbora tarterik ezin izatea eduki, zelatatua edo kontrolatua izatea ere gure espazio pertsonalaren inbasio argiak dira. Hortik, mugak jartzen jakiteko premia nagusia.

Gure intimitateari eraso egiten dioten eta estres jatorri boteretsu gisa agertzen diren kanpoko dinamika guztiei distantzia fisiko eta psikologikoak jartzen ikasteaz ari gara. Batzuetan gure lankideak, senideak edo lagunak izan daitezke zaratatsuegiak edo zapaltzaileegiak direnak. Osagai emozionala eta pertsona batzuekin dugun hurbiltasuna direla eta, gure oztopo pertsonalak urratzeko eskubidea dutela

pentsa dezakete. Batzuk ez baitira gizarte seinale horiek identifikatzeko eta errespetatzeko gai. Are gehiago, ikusiz gero, ez dute zalantzarik horiei iskin egiteko. Muga horiek errespetatzen ez dituen norbait badago, argi utzi behar zaio non dauden gure mugak.

Argiak izan behar dugu pertsona horri guretzat zer den onargarria eta zer ez gogorarazteko orduan. Muga horiek jartzen ditugunean, baliteke beste pertsonak haserre erantzutea. Besteen hesiak gainditzeko ohituta dagoenak ez du gustura hartzen ohartarazpen bat. Hala eta guztiz ere, ke-

mentsu jokatu, zure pentsamenduak defendatzen, emozioak, sentimenduak eta fisikoki zure espazio pertsonala babesteko.

Muga osasungarri, irmo eta argiak ezartzea lortzen badugu, osasun mentalean irabaziko dugu. Ez hori bakarrik, guretzako zer den eta zer ez den onargarria argi utzita gure harremanek hobera egingo dute. Gainera, edozein egoeratan seguru sentitzeko eguneroko ariketa eraginkorra da, norberaren nortasuna eta balioak argitzeko, eta asertibitate lantzen laguntzen duena.

Bizikidetza bestea ezagutzeko eta ulertzeko ardura da, eta, aldi berean, geure burua besteengan islatuta ikustea. Honetan enpatia, sentimendu eta tolerantzia dosi handiak daude, akordioak lortzeko beharrezkoak diren agertoki sozial enpatikoagoei forma ematen lagunduko diotenak. •

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

EH Bai, bigarren indarra; sinesgaitza dirudi

Hauteskundeek bigarren itzulian izango dugu igande honetan Ipar Euskal Herrian. Eskualdekoak ere izango dira – Akitalia Berria eskualde osoa barruti bakar gisa hartuta –, baina departamentalek jasoko dute gurean arreta berezia, elkarri lotuta dauden bi faktore nagusi erdigunean: lehen itzulian EH Bai bigarren indar lehenengoz bilakatu izanak bestelako ondorioak ekarriko ote duen, alde batetik; eta zentro-eskuinak hauteskunde hauetarako lortutako batasun handiak –Gehiengo Departamentala-ren hautagaitzaren eskutik– nagusitasun kasik erabatekoa emango ote dion (12 kantonamendutik, 11tan izango dira lehian zentro-eskuineko hautagaiak).

EH Bai zazpi kantonamendutan lehiatuko da, seitzen Gehiengo Departamentala-rekin, hain zuzen ere, eta zazpigarrenean –Hendaia, Urruña eta Biriatur osatzen duten kantonamenduan– Alderdi Sozialistaren ordezkariarekin. Beste bostetan historikoki ohikoa izan den eskuin-ekzertalen arteko norgehiagoka izango da.

BOZETAN GORA ABSTENTZIOA HANDITU DEN ARREN

Animaleko emaitzak lortu zituen EH Baik joan zen igandeko lehen itzulian. Bigarren indarra, bozen %25 eskuratuta (%17 jaso zuen 2015eko hauteskunde arrakastatsuetan). Lehen aldia da ezkerreko subiranismoak halakorik lortzen duela Ipar Euskal Herrian. Bigarren indarra, sinesgaitza dirudi. Bistan da abstentzioak eragin handia izan zuela, eta parte-hartze handiagoarekin ez lukeela boz portzentaje bera lortuko. Halere, abstentzioa izugarri igo arren (15 bat puntu), duela sei urte baino boz askoz ere gehiago jaso ditu oraingoan EH Baik (kasik 18.000 2015ean; kasik 21.000 aurreko igandean). Boto berria jaso du. Ezker estatalak kantonamendu guztietan hautagaitza aurkezteko izandako arazoek ere eragina izan dute fenomeno honetan.

Aste honetan, mapa politikoa marrazten duen lehen itzulitik erakundeetan eserlekuak eskuratzea ahalbidetzen duen bigarren itzuliko urratsean dago jarrita arreta. Bi hautagaien arteko buruz burukoak izango direnez kantonamendu guztietan, EH Bairentzat emaitza oso ona litzateke eserleku bat lortzea. Zaila da, alabaina, zentro-eskuinak egin duen itun sendoa dela-eta.

Berez, hain abstentzio handia izan ez balitz, dagoneko zentro-eskuinak lehen itzulian lortuak izango zituena hainbat kantonamendu. Ez da horrela izan, bozen %50 ez ezik, izen emandako hautesleen %25 ere lortu behar baitzuen irabazleak, eta hori ez du inork inon lortu. Horrenbestez, kantonamendu guztietan izango dira berriro bozketak, eta berriro zentro-eskuina izango da faborito.

Lasserre buru, zentro-eskuinak lortu duen adostasuna talde ezberdinek boterea partekatzeko urteetan landutako erraztasunaren ondorio da

Estatu frantsesean familia ezberdinak elkarri moka aurkeztu dira hauteskunde hauetan. Hemen, ez. Lasserre buru, zentro-eskuinak lortu duen adostasuna talde ezberdinek boterea partekatzeko urteetan landutako erraztasunaren ondorio da, eskuinetik zentrori Ipar Euskal Herrian egindako bidean ez delako zauri handirik izan. Beharbada, gainera, euskal aldarrikape-nei lortutako gai garrantzitsuetan azken hamarkadan erdietsitako batasun handiak –azkena murgiltze ereduak Paristik jasotako erasoaren aurrean– desadostasunak galarazten edo murrizten ditu.

Izandako abstentzio izugarria ahanzi gabe eta eserlekuen banaketa gorabehera, arnasa luzeko ibilbide politiko eta sozial baten arrastoa aurki daiteke Ipar Euskal Herriko hautetsontzietan. •

EURAK EURENTZAT ERAGITEN

Gazteen irtenbideak aisialdi eta kulturari

 JENDARTEA / Ibai Azparren


Hilabeteak dira konturatu ginela urte eta uda honek aurrekoaren antz handia izango zuela. Baina horrek ez du eragotzi gazteek jai herrikoien eta sorkuntzaren inguruko lanketak martxan jartzea. Imobilismoaren eta indibidualismoaren aurrean, tokian tokitik aisialdiari buruzko gogoeta kolektiboak plazaratu eta sareen bidez kulturari irtenbideak eskaini dizkieten gazteak dira elkarrikitasunaren protagonista, herri eta hirietan alternatibak sortu eta lokaletik Euskal Herriaren etorkizuna ehuntzeko bidea hasi dutenak.

Goizetik gauea eta aldezturik aurretik abisatu gabe, covid-19ak gazteen egunerokotasuna eta harreman sozialak eraldatu ditu. Konfinamendua, bakardadea, ziurgabetasuna... eta ondoren krisia, prekaritatea eta erruduntasuna. Pandemiaren kudeaketaren arduradunek euren egotzi diete hondamendiaren errua, eta inork ezin du ukatu kaleko edanak eta jaiak osasun mentalak edo prekaritateak baino albistegi gehiago ireki dituztela. Aisialdi alorreko murrizketek kaleak ukatu dizkiete, baina egun, pandemiak su-etena eman duelarik, pixkanaka, erreportaje honen oinarri diren aisialdi eta sorkuntzarako espazioak berreskuratzen ari dira Euskal Herriko gazteak.

Alazne Apellanizek, Iru-
ne Intxaustik, Peru Aiar-
tzak eta Julen Oillarburuk
ez dute elkar ezagutzen,

eta ezin da begi hutsez esan elkarrikitasun hauetan landu diren gaiak lotura dutenik. Baina, tokian tokitik, osoko zuzenketa aurkeztu dute 18 eta 25 urte bitarteko lau gazte hauek. Euren esperientziak agerian uzten dute gazteak mugitzen ari direla, pandemian ere espazioak eraldatzeari, aisialdiari buruz hausnartzeari eta sormena lantzeari ez diotela utzi, beretik eta berentzat eragiten.

Festarik gabeko uda honetan, jaietan herri mugimenduak duen garrantzia goraiatu dute Gasteizko Gazte Karpan, eragile izatera pasatu nahi dutelarik. Donostiako Parte Zaharrean sortzaileak saretze lanetan ari dira. Arratian, udalekuen bidez, haurrei transmititutako balioei eta hezkuntza ez-formalari eman diete garrantzia, eta EHZ musikatik harago doan festibalen antolaketan ere badabilta gazteak, gorpilak ez diezaion biratzeari utzi.



Monika DEL VALLE | FOKU

IRUNE INTXAUSTI

ZAZTAPARRAK ASTI TALDEKO KIDEA

«Balioak transmititzen ditugu ekintza guztietan»

Haurrek jolasteko duten tartea baino askoz gehiago da aisialdia. Udalekuek hezkuntza ez-formalaren garrantzia jartzen da mahai gainean, eta bertatik igarotzen direnek balio zehatzak partekatzen dituzte, erreleboa hurrengo belaunaldiari pasaz.

Zer lan egiten duzue zehazki Arratiako Zaztaparretan?

Zaztaparrak da Arratiako aisialdi taldea, non hainbat proiektu ditugun martxan. Horien artean, Arratiako herrietako ludotekak ematea, udaleku irekiak, eskolaz kanpoko ekintzak, herriko jaietan antolatzen ditugun jolasak, tailerrak... Baina daukagun proiektu nagusia udaleku itxiak dira. Abuztuko lehenengo 12 egunetan egiten

dira, Euskal Herriko herriren batean, Arratiako eta Zeberioko umeekin. Bertan, hainbat balio transmititzen ditugu: euskara, talde lana, inklusioa, berdintasuna...

Nola aldatu du pandemiak dinamika?

Pasa den urtean ezin izan genuen antolatu udaleku itxietako proiektua, nahiko zaila ikusten genuelako neurriak betetzea. Aurten umeak ezin izango dira batera egon; hiru taldetan banatu beharko ditugu: txikiak ertainak eta nagusiak.

Neurrien etengabeko gorabeherak zaildu egin al du antolaketa lana?

Lan hori garatzen hasten gara irail hasieran, eta urte osoan egiten dugu lan, abuztuaren erdialdera arte. Irailean hasi

ginenetik neurriak aldatuz joan dira eta proiektua aldatu egin behar izan dugu askotan; gurasoei helarazi diegun informazioa aldatzen joan da... ez dakigu mantendu ahalko dugun daukagun proiektua.

Kuadrillako talde itxetik atera eta jende berria ezagutzeko espazio egokiak al dira aisialdi taldeak?

Azkenean, begirale garenak Zaztaparretan ume izan gara inoiz. Eta hortik badaukagu gure harreman estua, baina bai, nik uste dut aukera ona dela Arratiako artean harremanak sendotu eta balioak transmititzeko.

Aisialdia baino gehiago, hezkuntza ez-formala ere lantzen duzue.

Gure balioak transmititzen ditugu egiten ditugun ekintza guztietan, talde lana eta autonomia bultzatuz. Uste dugu balio horiek egokiak direla transmititzeko, baita umeek disfrutatzeko ere.

Garrantzi handia ematen diogu hezkuntza formalari, baina horrelako udalekuek garrantzia dute haur edo nerabe baten bizitzan.

Askotan pentsatzen dugu jolasen bidez ezin direla gauza serioak transmititu. Guk, ordea, uste dugu hori posible dela eta ahal den heinean hori egiten saiatzen gara.

Beraz, gizartea eraldatzeko ere balio dute?

Gizarte honetan, arlo askotan, erabakiak hartzeko aukera kentzen dute, goitik hartzen direlako erabakiak. Guk udalekuek bultzatzen duguna da umeen autonomia, erabakiak hartzea, inposatuta dagoena ez egitea, denok hartzen dugu parte udalekuaren garapenean.

JULEN OILLARBURU

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN FESTIBALAREN ANTOLATZAILEA

«Euskal kulturaren inguruan egiten den topagunea izan nahi du EHZk»

Kultur ekimenak geldirik dauden pandemia honen testuinguruan, EHZ festibala antolatzen duen elkarteak iragarri zuen 25. edizioa uztailaren 2, 3 eta 4an ospatzeko lanean ari direla. Tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta bestelako lanketa kolektiboak egongo dira, esperientzia kolektibo anitzen espazioa izatea helburu. Baina, noski, musika ez da faltako, eta Ruper Ordorika, Kuartz eta Chill Mafia, besteak beste, izango dira Irisarriko oholtzan. Julen Oillarburu festibal honen antolatzaileetako bat da.

Izurritea, salbuespen egoera, kultur ekimenen etena... Ez da erraza izan EHZren 25. edizioa posible egitea.

Ez da batere erraza izan. Hasieratik, urtariletik, guk erabaki genuen EHZ bai ala bai egin behar genuela. Kontzertuak egin nahi genituen hasieratik, osasun neurriak errespetatuz. Gure antolakuntza edo aurtengo formatua aldatu egin dugu. Pixka bat konplikatu izan da, neurriak aldatu direlarik egokitu behar izan dugulako.

Prefeturarekin adostu duzue eta kanpalekua izango da.

Kanpalekua izango da, eta 3.000 pertsona sartuko dira. Kontzertuak zutik ere ikusi ahal izango dira. Azkenean, festibala duela bi urtekoa bezala izango

izango da, edo bederen antzekoa, nahiz eta osasun paseak eskatuko ditugun.

Aipatu bezala, ibilbide luzekoa da EHZ festibala. Zeintzuk izan dira bidean topatu dituzuen gorabeherak?

Balorazioa egitea zaila da. Baina esan daiteke EHZk, alde batetik, bere balioak ez dituela galdu: hainbat tokitako laborearekin lanean ari gara, brigada ubela dugu... Segitzen du bere balioak aplikatzen hiru egun horietan. Bestalde, 25 urte iraun du, belaunaldiz belaunaldi transmititu den tresna baita EHZ. Aurten ere, laguntzaileak motibaturik daude, laguntzeko prest. Azkenean, arazo ekonomikoak jasan ditu, pandemia... baina beti hor da.

Zer garrantzi du Ipar Euskal Herriko gazteriarentzat?

EHZ beti garrantzitsua izan da gazteriarentzat. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko lehen festibala baita, 1996an sortu zelarik. Eta gero hastapenetik topagune bat izan da barnealdeko eta kostaldeko gazteen artean. Euskal kulturaren inguruan egiten den topagune bat izan nahi du. Gazteei eskaintzen die leku bat hiru egunez elkar ezagutzeko eta jokatzeko euskal kulturaren inguruan.

«Besta bai, gogoeta ere bai» lelopean egin duzue edizioaren bat. Nola bateratzen da eduki

politikoa eta festa?

EHZ festibal normal bat baino haratago doa. Lehen aipatu dut euskal kultura, baina hemen ditugun arazoezko eramaten ditugun gogoetak ere hor dira. Aurten ere izanen da eztabaidarako txoko bat; hainbat mahai-inguru antolatu ditugu. EHZ festibal bat baino gehiago da, pertsona batek aktore gisa festibalean parte hartzeko balio du, bere ideiak partekatzeko.

Zeintzuk dira EHZren oinarriak?

Kulturgintza plaza bat da, hausnarketa plaza bat. Belaunaldiz belaunaldi transmititu den tresna bat da, baina batez ere gazteak formatu ditu antolaketan. Laguntzaile bezala hasten gara, pixkanaka ardurak hartzen ditugu, eta, azkenean denak formatu dira EHZri esker.

Nola moldatzen zarete EHZ moduko festibal bat aurrera eramateko?


Aurten, biziki berezia izan da eta denbora laburrean antolatu dugu. Komisioetan antolatzen gara: administrazioa, komunikazioa, eduki politikoa, teknika, brigada berdea, brigada ubela, janaria... Gero badugu koordinazio gune bat, non komisio bakoitzeko arduradunak joaten diren. Modu aski horizontalean antolatzen gara, parte-hartzailea da.

Eta hori, gazteak ezertarako mugitzen ez direla dioten iritzien aurka.

Denak gara gazteak EHZn. 25 urte ditut nik, baina komisio batzuetan 17-18 urteko gazte batzuk daude, eta, horrela, pixkanaka ikasten dute. Horrela ikasi dugu besteok. Jakin behar da azken hiru hilabeteetan 60 bat gazte ari direla antolakuntza lanetan.

Publikoari begira, helburua ez da musika kontsumitzeko festibal bat martxan jartzea.

Hori da, ez da festibal komertzial bat, non helburua den soil-soilik musika kontsumitzea. Musikaren partetik ere bada lanketa bat, euskal musikaren baitan dagoen aniztasuna plazaratu nahi dugu festibal honetan, hainbat artistari aukera eman beren sorkuntzak erakusteko. Hori aurten oso garrantzitsua izango da.



Guillaume FAUVEAU | FOKU

ALAZNE APELLANIZ

GASTEIZKO GAZTE KARPAKO KIDEA

«Espazio izatetik eragile izateko pauso bat ematen gabiltza Gazte Karpan»

Gasteizko txosnagunean dago Gazte Karpa. Hiriko gazte mugimenduaren ekimenez sortu zen guneak 10. urteurrena ospatu du aurtten. Pandemiak eragin zuen etenaldiak balio izan die jai eredu alternatibo bat eskaintzen duen espazio izatetik eragile izatera pasatzeko. Edo horretan ari dira, aisialdiaren inguruan hausnartzen eta proiektu berriak martxan jartzen.

Txosnaguneak etenaldi bat izatea erabaki zenuten

pandemia hasi zenetik. Baina kalean jarraitu eta lana egin duzue denbora honetan?

Kalean eta barrura begira ere lanean jarraitu dugu. Azken batean, jai ereduaren eta aisialdiaren inguruan hausnarketa bat egin dugu eta proiektu berriei hasi gara. Hori dela eta, gure kasuan espazio izatetik eragile izaterako pauso bat ematen gabiltza, eta egia da pandemiak, arlo horretan, onura ekarri digula. Hausnarketa hau auzoetara



Raul BOGAJO | FOKU

ere zabaldu dugu. **Iaz, pandemia zela-eta, YouTube bidezko musika emanaldia antolatu zuen Gazte Karpak.**

Honen helburu nagusia batez ere Gasteizko eta Arabako sortzaile nagusiak ezagutaraztea zen, eta Gazte Karpak izugarritzako bultzada ematen die haiek ere indar hori hartzeko. Horrez gain, egia da Gazte Karpa gazte ezberdinentzako espresio tokia bilakatu dela eta Txosnagunearen barnean horiek bultzatzeko eta

PERU AIARTZA

DONOSTIAKO PARTE ZAHARREKO SORKUNTZA TXOKOKO KIDEA

«Elkarren arteko babesak laguntzen du sortutako hori argitaratzen»

Sorkuntza Txokoa itxialdi garaian sortu zuten Donostiako Parte Zaharreko hainbat gaztek, hiriko sortzaileak sartzeko asmoarekin. Pandemia garaian kulturari irtenbide bat bilatu zioten, eta Sortzaileen Eguna ere ospatu zuten.

Nola eta zergatik sortu zen

Sorkuntza Txokoa?

Auzoan gazteok harremana daukagu gure artean, gazteen mugimendua dago. Baina ikusten genuen bakoitza bere esparruan ibiltzen zela sortzen, eta askotan kostatzen zitzaigula sortzen dugun hori erakustea. Beraz, erabaki genuen biltzen hastea. Elkarren arteko babesak

laguntzen du sortutako hori argitaratzen, mahai gainean jartzen edo besteei erakusten. **Zeintzuk dira martxan jarri dituzuen ekimen nagusiak?** Gelditzen hasi ginenean, lehendabizi hitz egin genuen gure nahien inguruan, zer lortu nahi genuen noizean behin bilduz... eta helburu bezala jarri genuen

Sortzaileen Eguna hori. Kontzertuak egon ziren, bertso saio bat, mural bat margotu genuen... Gainera, egun horretan aurkezteko, helburu bezala jarri genuen literatur liburuxka bat aurrera ateratzeko. Gazte ezberdinak animatu ginen bertan parte hartzera.

Nolako izan da antolaketa lana?

Hasieran, pentsatu genuen asteen behin biltzea, baina ikusten genuen agian hori karga handiegia izan zitekeela eta hasi ginen bi astetan behin biltzen. Librea zen bertaratzea, inongo ardurarik gabe. Tarte hori erabiltzen genuen sortzeko, bata besteari lagunduz, ideiak emanez,

bakoitzak eskaini zezakeen hori eskainiz.

Zein da gazte esparruan sorkuntzaren munduak bizi duen egoera?

Nik uste gazte eta orokorrean pertsona sortzaile asko dagoela, baina egia da sortzen dugun asko guretzako gordetzen dugula. Horrelako ekimenekin aukera hori dago, begirada zabaldu eta gertukoei bakarrik erakutsi beharrean, pixka bat haratago argitaratzeko. Ni bertsoan ibiltzen naiz; horrek ematen dit barruan dudak hori kanporatzeko aukera. Baina egia da nire kabuz dextente idatzia daukadala eta hor gelditzen dela askotan, koadernotan.

saretzeko apustua egin ahal izan dute.

Maiatzean Gazte Karparen 10. urteurrena ospatu zenuten. Zer balorazio egiten duzue hamar urte hauetaz?

Hamar urte hauek aldakorrak izan dira eta jende asko pasatu da Gazte Karpatik, gazteak eta agian ez hain gazteak diren batzuk, belaunaldi gazteei ekarpen bat eginez. Gazte Karpa familia bat bezalakoa da eta Gasteiz guztia horren barnean dago. Azken batean, Gasteizko gazteriak orokorrean Gazte Karpa motibazio bat bezala ikusten du. Errekonozimendu hori egiteko, pentsatuta daukagu bideo baten bidez Gazte Karpak egindako lanari eskerrak eman eta gazte belaunaldi berri horrekin esperientziak konpartitzea. **Pandemiaren ondorioz, gainera, 40. urteurrena ospatzeari uko egin behar**

izan diote Gasteizko Txosnek. Zer egin nahi zenuten?

Egia da Gasteizko txosnek ere uko egin ziotela. Gazte Karpa, pandemia honetan, saiatu da apur bat jai eredu horietatik ateratzen, eta hortik at, saiatu da aisialdiaz ere disfrutatzeko aukera ematen. Uda honetan zehar aldarri eta proiektu ezberdinak burutzen saiatuko da, Gasteizko Txosnekin bat eginez. **Urteurrena ez da udara begira antolatu duzuen ekimen bakarra. Zer gehiago prestatu duzue hurrengo hilabeteetarako?** Egia da ez dakigula nola egongo den egoera, oraindik proiektu bat amaitu berri dugu hamargarren urteurrena dela eta. Lanean gabiltza oraindik konfirmazio batzuen bila, baina gure asmoa da Gazte Egun bat antolatzea, eta Gazte Karpako izaera eta

«Irudikatzen genuen Gazte Karpa ez zela soilik jaietarra bideratu behar zen espazioa.

Espazio hori izatetik haratago, helburu eta erronka batzuk zehaztu genituen»

«Gazte Karpa familia bat bezalakoa da eta Gasteiz guztia horren barnean dago. Azken batean, hiriko gazteriak Gazte Karpa motibazio bat bezala ikusten du»

elkarlan hori berriro bermatzea. **Gazte Karpak lotura handia du festarekin, baina hortik haratago doa.** Pandemia honek apur bat ezustekoan harrapatu gaitu, baina aurretik hausnarketa bat egiten ari ginen. Irudikatzen genuen Gazte Karpa ez zela soilik jaietarra bideratu behar zen espazioa. Espazio hori izatetik haratago, helburu eta erronka batzuk zehaztu genituen eta proiektu batzuetan oinarritu gara. Esan dudan moduan, jaien eredu horietatik at, gustatuko litzaiguke aisialdiari garrantzia ematea. **Gasteizko txosnak lanaldi luze baten emaitza dira. Zer harreman ezartzen da kideen artean denbora horretan? Eta Gazte Karpan bertan?** Txosnak herritik eta herriarentzat antolatzen ditugu, konpromisoarekin

baina gogo pilo batekin, mimo handiz. Zalantzarik gabe, honek Gasteizko herri mugimenduan saretze eta elkarlan bat sortzen du eta ekartzen du denon artean elkarlan hori bultzatzea. Gasteiztik ere horrela jasotzen ditugu jaiak, edo jendeak ere horrela jasotzen ditu. Azkenean, jende asko identifikatuta sentitzen da gure jai ereduarekin eta atzean dagoen lana kontuan hartzen dute. **Herri mugimenduaren adierazle da orduan Gazte Karpa?** Bai, zalantzarik gabe. Badakigu jaien barruan kokatzen den aldarri bat dela, baina jaiak aldarriz betetzen ditugu, borroka espazio bezala ulertzen ditugulako. Feminismotik, euskaratik, sozialismotik bultzatzen ditugun jai ereduak dira, eta urtero borroka ezberdinen erakusleho izaten garela esango nuke.

Badaude sortzaile izatetik bizitzeko aukera dutenak, baina gehienek beste lan bat behar izaten dute.

Bai, gure kasuan bigarren aukera horretan kokatzen gara. Ikusten genuen ekimen hau polita zela gure buruak xaxatzeko. Epe finkoak jarrita zeure burua behartzen duzu, askotan sortzearena jartze kontua da. **Gazteek sortzeko grina dute, baina agian ez daude tresnak gogo hauei aterabide bat emateko.** Tresnak baino, nik uste gehiago dela inguruaren babes hori edukitzea. Talde sentsazio hori edukita, indarrak hazi egiten dira eta horrek hauspotzen du



Jagoba MANTEROLA | FOKU

sortzeko grina hori. **Zeintzuk dira sorkuntza txokoaren ardatzak?** Egia da guk euskaratik sortzen dugula, baina, adibidez, etorri zen mexikar lagun bat. Berak ez daki euskaraz, guk lagundu genion lanak euskaratzen, berak erakutsi zigun gaztelaniaz egiten duena eta hori ere onartua dago gure sorkuntza txokoan. **Ekimen hau koiunturala da ala etorkizunean jarraipena ematea aurreikusten duzue?** Helburu bezala jarri genuen Sortzaileen Egun hori eta oso ondo atera zen. Egun hori pasatu da, udan bakoitzak bere planak egiten ditu. Baina asmoa da berriro ere gelditzen hastea eta sortzen jarraitzea.



Idoia ZABALETA | FOKU

IKUSMIRA

MERITUA, DISKRIMINAZIOA...

“Euskara ez da meritua izango eremu ez-euskaldunean”. Funtzio publikoan hizkuntzen ezagutzaren balorazioa arautzen duen dekretuak beste hizkuntza europar batzuk aintzat hartuko ditu; Nafarroako hizkuntza ez, ordea. “Ikasleen harrera arautzen duen legezko markoa berritu du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak”, norabide berean, euskaraz ikasten dutenen kaltetan, alegia. Azkenak, edo beharbada ez, baina ezagunenetan azkenak. Azkenak eta, beraz, ez bakarrik. Ez dugu lau edo bost mende atzera egingo, ezta 80 urte ere, iazko irailera baizik: “La traducción al euskera retrasa la activación en Euskadi de la app que rastrea el virus”. Eta azken asteotara: “Irungo udaltzain izateko euskara eskatzea diskriminatzailea dela dio EAEko Auzitegi Nagusiak”. “Frantziako Kontseilu Konstituzionala Hizkuntza Gutxi-tuen murgiltze ereduaren aurka agertu da”. Joan den asteazkenean nafar guztiek euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu zuten Iruñean, meritua izango ez duten arren. Bost mende edo 80 urte atzera egin gabe, gaur egun benetako meritua euskaraz ikasi eta euskaraz bizitzea da Euskal Herrian. Xabier Izaga Gonzalez



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Bakarrizketak pantaila txikian: bai ala ez?


Stand-up-a, monologoa edo bakarrizketa pertsona bakar batek eginiko hizketa luzea da, orotariko gaien inguruan bere pentsamenduak jaurtitzen dituen, umorea eta gizarte kritika uztartuz normalean. Formatu honen funtsa eta oinarria zuzenekoak izaten dira eta batez ere bertan egoten den publikoa, noski. Azkenaldian ordea, plataforma digital ugaritan zuzeneko saio hauek zintzilikatu dituzte geure etxeko sofatik eta pantaila txikiaren bidez ikusteko. ETB-ko «barre Libre» saioa emanaldiak esaterako, asko zabaltzen ari dira geure artean, eta aurrekoaren ezaugarri berdinak partekatzen ditu: zuzeneko publikorik eza. Zentzurik ba ote du zuzenekoaren beharra eta publikoaren presentzia ezinbestekotzat duen formatu hau telebistaren bitartez igortzea? Netflixen ikusi dudak azken harribitxia irentsi ostean, nire erantzuna argia da.

Bo Burnham: Inside

NETFLIX

Covid-19aren pandemiaren etorrerak, eta bereziki konfinamenduak, sortzaile asko ohiturak aldatzera ez ezik, beren lana berrasmatzera bultzatu ditu. Hori da 30 urteko Bo Burnham umoregile, musikari, aktore eta zinemagile estatubatuarrek ikus-entzunezko sailkaezin baina zoragarri honekin egin duena.

Dena den, “Bo Burnham: Inside” izeneko lana konfinamenduan jaio den ikus-entzunezko onena zergatik den azaldu aurretik, Bo Burnham nor den azaldu behar dut. 2006an, Burnhamek bi abesti grabatu zituen bere kabuz eta YouTubean zintzilikatu zituen familiarekin partekatzeke. Berehala egin ziren ezagun eta biralizatzen hasi ziren. Ikustaldi kopurua igo ahala, eta jarraitzaileak lortu, bakarka, gitarra edo piano digitalaren laguntzaz, Burnhamek “komedia musikal pubeszentea” izeneko abestiak eta bideoak kaleratzen jarraitu zuen.



“The Boston Globe” egunkariaren hitzetan, «aldi berean osasuntsu eta aztoratzaile, intimoa, erokeria moduko batean nabigatzen duena», Burnhamek supremazismo zuriari, ezintasunei, Helen Kellerren homosexualitateari eta gai askori buruzko abestiak idatzi eta kaleratu zituen. Bideo guztiak etxean egin zituen. Burnhamen emanaldiek arraza, generoa, giza sexualitatea, sexua eta erlijioa bezalako gaiak jorratzen dituzte. YouTubeko lehen izarretakotzat har daiteke, beraz.

Arrakasta horri esker, 2008an Londresen, Comedy Central-eko The World Stands Up taldearen emanaldi batean parte hartu zuen eta lau disko-ko kontratu bat sinatu zuen Comedy Central Records-ekin. Hortik antzokietako biren mundura jauzi egin zuen, tele-sailetara (“Zach Stone Is Gonna Be Famous” sortu zuen) eta baita zinemara ere (“Eight Grade” zuzendu du adibidez). Bere ideiak hain dira harrigarriak eta originalak, Chris Rock edo Jerrod Carmichael bezalako artistek kontratatatu zutela bere stand-up showak zuzentzeko. Bere komedia estilo bereziak letra sarkastikoz betetako abestiekin uztartuz, eta teknikoki guztia muturreraino zuzentzeko gaitasuna eta talentua duela erakutsiz, figura berdingabe bat bilakatu duten arte.

Tira, umoregile hau apur bat hobeto ezagutu ostean, murgil gaitzen Netflixerako estreinatu berri duen “Inside” saio berezi-sailkaezin honetan. Arrazoi du saioaren hasieran, «ongi etorri, dena delako honetara» dioenean, ordu eta erdiko metrajearen ondoren, benetan zaila delako genero batekin etiketatzea, baita dizi-

plina batekin ere; Stand-up komediaren kutsua duen performance abangoardista? Bideo-klip sorta zirikatzailea? Itxialdian egindako ikus-entzunezko sailkaezina? Argi daukadan gauza bakarra da harribitxi bat dela, hasieran esan dudan moduan konfinamenduan jaio den obrarik pertsonalena, bereziena eta ziu-rrerik onena.

Ikus-entzunezko saiakera bat da, hondoa jo dugunean umoreak jotzen duen (jokatu duen eta jokatu duen) rolari buruzkoa, komediak beti dramarekin izango duen harreman delikatuari buruzkoa, eta barreak beti negarrarekin izango duena.

BARREGARRIA ETA ITOGARRIA

Itxialdiari buruzko hausnarke-ta bat da, barregarria eta itogarria aldi berean. Burnham gazte zuri, hetero eta pribilegiatuaren lekuan kokatzen da, autoparodiatzeko, zuzentasun politikoaren, sare sozia- len ez tandaren eta batez ere une oro eta etengabe iritzia emateko tentazioaren garaian (Jeff Bezosen aholkuei iseka egiten dien, sexting-a, sare sozialak, lan esplotazioa, paranoia, bakardadeak sortzen dituen miseriak, traumak edo lagunen seme-ala- bak sartzen ditu hasieratik jokoan). Netflixeko ikuskizun honetan oso presente dago hasieratik erabateko bakardadean 30 urte betetzen dituen gizon baten osasun mentalaren haustura, «mundua amaitzen den bitartean». Era berean, fobia eta izu une horiek, kantu burutsuetan islatzen saiatzen da, ekoizpenak irauten dituen ia 90 minutuetan ikuskizunaren maila inoiz jaisten ez dutenak. Hain arrakastatsua izan da sortu duen



gaitasuna duen argiarekin jolasteko eta sekuentzia desberdinak sortzeko. Musika eta letrak ere bikaintasun maila nabarmenekoak dira eta, nola ez, gela horren erabilera izugarria iruditu zait.

Stand-up komedia gustuko izan ala ez, eta nahiz eta formatua bera deigarria ez iruditu, biziki gomendatzen dizut harribitxi honi aukera bat ematea. Garai tristenetan dibertigarria izaten saiatzeari buruzko obra indartsu bat delako, intimoa, sarkastikoa, ausarta eta batez ere oso zintzoa.

FORMATUAREN ZENTZUAZ

Sarreran jaurti dudan galdera erantzuten amaitu nahiko nuke gaurko testua; ea zentzurik ba ote duen formatu honek telebistan, alegia. Gomendatu dizuedan lan bereziaren tankerakoak badira nire erantzuna argia da: bai, noski. Espresuki era honetan kontsumitzeko sortua izan delako eta horretako beharrezkoa diren erreminta guztiak ezin hobeto zukutu dituztelako. Bakarrizketa tradizionalaren kutsua duten lanekin aldez, zalantza ugari pizten dira nire barnean.

Egia da AEBetako edo nazioarteko emanaldiak ikusi nahi baditugu adibidez, irtenbiderik errazena, erosoena eta batez ere merkeena hauxe dela. Baina zeure etxetik gertu horrelako zuzeneko batez gozatzeko aukera baduzu, utzi telebista alde batera eta joan zaitez bi aldiz pentsatu gabe. “Gaztezulo” aldizkarirako Jon Plazaolari egindako elkarrizketan esan zidan moduan, «bakarrizketak telebistan ez zaizkit inoiz gustatu, nire us-tez bakarrizketen tokiak tabernak, kafe antzokiak edo gaztetxeak dira».

abesti zerrenda, laster disko bat aterako dela. Spotify-n ere entzungai dauzkazue abestiak. Ia hiru milioi entzunaldi lortu dituzte.

Mezu zorrotz, probokatzailerik eta zirikatzaile horien artean eta ia guztia berak bakarrik sortu duen arren, oso deigarria iruditu zait lanak duen taxuketa teknikoak. Argien erabilera, adibidez, bikaina da, harrigarria da hain elementu gutxirekin zer-nolako



Arantxa Urbe - @arantxaurre
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Nork ikasten du ikasgelan?

Ikasgelan gehien ikasten duena beti irakaslea da, beti». Plaust! Bota du 2021eko Kulturaren Viana Printzea saridun Teresa Catalan Sanchez musikagile nafarrak. Irratian ari zaizkio elkarrizketa egiten, eta, artean, musika eta hitzen konbinazio melodiatsua nuen bidaide lanerako bidean, uhinak bailiran. Esaldiak elkarrizketaren mamira erakarri eta gogoeta sortu du nire baitan: ikaste-irakaste prozesuan nor da ikasten duena... irakasle senak itsututa, akaso, sekula ez nuen prozesu hori ikuspuntu horretatik begiratu.

Catalanek kontatzen jarraitu du bere aita Nafarroako Museo zaindaria zela, eta, beraz, museo batean jaio eta hazitakoa dela. Bere haurtzarora koadroz, eskulturaz, liburute-giz, artez eta abarrez inguraturik pasatu zuen, museo hori izan baitzen bere jolaslekua. Museoak zituen gauza guztien artean, bere gogokoena areto nagusian zegoen pianoa zela aipatu du, haren itzalean ikasi zuela musika eta hari begira erabaki zuela konpositore izatea. Bere buruari Mozart Chopin-engandik zerk bereizten zuen galdetuz hasi zen, eta galdera horiek izan ziren musika konposizioaren sakonera eraman zutenak.

Txikitatik espiritu errebeldea izan omen du nafarrak, «galderak egiten nizkion neure buruari, eta gehienek erantzunik ez nekizkien. Horrek abiapuntura eraman ninduen, sormenera. Bertigoa ematen zuen mundu batera atera nintzen, asko bilatu behar zen erantzunik aurkitzeko, eta orduan ikasi nuen musikatik ere ikus daitekeela mundua».

Irakaskuntzaren mundua zer den behatu omen zuen, eta ohartu zen ikaskuntzaren mundua zabala dela, ikasgelan gehien ikasten duena irakaslea delako. «Askok prestatu beharra dago, ikasleek asko aberasten dute, norberari sekula bururatu ere egin ez zaizkion ikuspuntuak ekartzen dituztelako. Eta, orduan, ohartzen zara horrek osatzen zaituela, osatzen du zure pentsamendua, zure izateko modua, besteenga-

na hurbiltzeko eta bestea ikusteko zure modua... mundu hori guztia oso interesgarria da, zirraragarria, ia. Irakaskuntza luxua izan da niretzat». Teresa Catalanengatik diote asko zaindu duela pedagogiaren arloa, hezitzailearen figura aldarrikatu duela letra guztiekin, eta hori oso garrantzitsua dela.

Galdera onetatik datoz ikaskuntza onenak, dudarik gabe. Aspaldi bilakatu zen hori ikaskuntza esanguratsuen ezaugarri eta oinarri funtsezkoetako bat. Galdera onak egiten jakitea da hezitzaile on baten bertute handienetako bat. Horregatik, galderak, galdera onak, egitea da hezitzaile lanbidea zailtzen duen alderdietako bat.

Azken asteak ebaluazio garaia izan dira gure hezigunetarako. Ikasle bakoitzaren erradiografia egin dugu: curriculumek eskatutakotik ikasturtea gaitzitzeko adina nork ikasi duen; nork izan duen arrakasta eta nork ez; nor izan den konpetentea, eskatu dizkiegun konpetentzia horiek, edo eskatu dizkiegun moduek, bizitzen ikasteko zenbateko ekarpena egiten duten oso argi ez badugu ere, sarri.

Hortxe utzi digu nafarrak galdera interesgarria geure buruarentzat: zer ikasi dut ikasturte honetan ikasgelan?

Bejondeigula ikasturtea oraingoz erantzunik topatu ez diegun galderaz beteta amaituko dugunoi! •



Ikasleek asko aberasten dute irakaslea. Komeni da ikuskera hori ez galtzea. Raul BOGAJO | FOKU

{ koaderno } Mirari Martiarena Iraola

Historia

A skotan entzun izan dudana esaera da hau: Gaur egun gertatzen ari dena ulertzeko atzera begiratu behar da, historiari begiratu behar zaio. Historiari erreparatuta gauzak ziklikoki nola errepikatzen diren ikusiko baitugu. Ikasle nintzela gustuko nituen Historiako klaseak, irakasleek ere bazuten zeri-kusirik noski, baina orokorrean interesez jarraitzen nituen bateko eta besteko kontuak. Nota txukun xamarrak ateratzen nituen eta horrekin gustura.

Historia liburuetan azalduko ez diren arren, denok dugu gurea: Historia eta istorioak. Xelebrekeriak, pasadizoak, gertakizun gozoak, gaziak, minak eta pozak. Batzuk betirako iltzatuta geratzen dira gure memorian eta kontatzen ditugun bakoitzean epikotasuna irabazten dute. Gerta liteke leku, momentu eta une berean zurekin zegoen horrek une hori sekula ez gogoratzea eta zuk jakitea pertsonak zer esan zuen bere puntu, koma eta hiru puntuekin.

Badira nire bizitzan oso gogoan ditudan hiru momentu, bi unibertitate garaikoak. Lehenengoa Gazte-sareko "Irauli uhinak" irratsaioan Jon Plazaola el-karrizketatu genueneko. Bigarrena, Aitziber Garmendiak "Matraka" "Berria" egunkariko gehigarrian suizidioari buruz idatziriko zutabea. Ordutik jarraitu izan ditut euren ibilbide profesional eta proiektuak. Etxeko eta gertuko sentitu izan ditut beti eta umore-gintzan nire bi erreferente izan dira. Eta zenbatetan ez ote zitzaidan burutik pasatu: gustura egingo nuke eurekin lan. Hirugarren momentuan ere Plazaola da protagonista, nola kontatu nion oso modu hipotetikoan bakarrizketak egiten hasteko aukera, ideiak zein izan zitezkeen eta erantzun zidan irribarretsua: egina daukazu, jarri eguna eta egin. Ni aitzakia bila eta berak, berriz: jarri eguna eta egin.

Iazko abuztuko egun eguzkitsu batean, oporretatik bueltan nentorrela jaso nuen espero ez nuen telefono deia. "Barre librea" telebista saiorako gidoilari izateko eskaintzarekin. Ez dut inoiz opor osteko sindrome hain gozorik izan. Hainbeste miresten nituen eta di-

tudan bi umoregilerekin lan egiteko deitu ninduten. Aitziber, Jon, Kepa Errasti eta Getari Etxegarairekin lan egiteko proposamena, nire ametsik gozoenetan ere uste dut ez zela horrelakorik gertatu. Pozarekin batera azaldu ziren maila ez emateko nire beldurra eta bertigoa. Baina haiengandik jaso dudana konfiantza eta maitasunak desagerrarazi zuen pentsamendu hori. Lan egiteko modu berezia izan da gurea, baina definizio bat ematekotan intentsoa izan dela esango nuke. Ez ditut ahazteko produkzioa Izaskun eta Alaitz ere, zaintza lanetan parekorik ez duten bi emakume.

Irailetik hona zenbat ikasi dudana esateko hitzak ez zaizkit kabitzen. Nahiz eta etiketak ez zaizkidan gus-tatzen, nire burua "Sortzaile" eta "Umoregile" hitz lar-rriz izendatzeko balio izan dit eta itzalean egiten den lana zein garrantzitsua den berrikasi dut. Etengabeko ikasketa eta sormen prozesua izan da, bai kamera atzekoa eta bai aurrekoa. Nire historia pertsonaleko kapitulu garrantzitsuenetako bat, zalantzarik gabe.

Iazko abuztuan oporretatik bueltan, jaso nuen espero ez nuen telefono deia. «Barre librea» telebista saiorako gidoilari izateko eskaintzarekin. Ez dut inoiz opor osteko sindrome hain gozorik izan

Hain jende politez inguraturik lan egiteak ez du pre-ziorik.

Atzera begiratu behar da tarteka nondik gatozen gogoratze eta momentuan bizi dugunari behar duen balioa emateko. Ikasturte honi eta "Barre librea"-ri ematen diodan balioa ez zait bihotzean kabitzen. As-kotan zauriekin marrazten ditugu gure bizitzako ma-pak eta horren baitan kokatzen ditugu denboran. Gaur dena pozez kontatzeak ez du esan nahi, orain gu-txi zuloan egon ez naizenik. Bestela gogoratu orain bi hilabeteko nire kolaborazioa, baina hori ere umorez gauditu genuen. Hauxe da nire historiaren zati bat. Zein da zurea? •

A skotan hala jaso izan den arren, Darwinek ez zuen esan indartsuenek irauten dutela, ondoen egokitzen direnek baizik. Zehaztaperen horrekin abiatu zuen gogoeta Arkaitz Zubirik, UPV/EHUko irakasle eta iker-tzaileak, asteon Miramarren izan den “Pandemia garaiko kulturgintza: egoera eta erronkak” ikastaroan.

Eta Darwinen ideien gaineko zuzenketak argi izpi bat pausatzen du euskal kultura-

te bizitzeko, aurrera egiteko, beste bizidun askoren pare.

«Gizakiok elkarri laguntzeko gaitasuna badaukagu. Baina hori gerta dadin hainbat baldintza gertatu behar dira. Horietako bat da gure bizitzaren zentzua eraikitzea, gure bizitzek berez ez daukatelako esanahi bat edo zentzu bat. Eta eraikitzen dugun zentzuaren arabera, bizitza hobea edo okerragoa izango da».

Zubirik Erik eta Joan Erikson ikertzaileak ere aipatu zituen bere gogoetan. Sigmund Freudek zehaztutako bost etapei

beste lau gehitu zizkieten. Horietako bat: Integritatea vs desesperazioa. «Horren arabera, gizakia bere bizitzako momentu batean bere ibilbideari buruz hausnartzera iristen da. Nolakoa izan da nire bizitza eta nolakoa da orain? Segun nolakoa den, integritatea edo desesperazioa sentitzen du. Horrek esan nahi du egin dugunari edo egiten dugunari ematen diogun zentzuaren arabera, hobeto edo okerrago sentitzen garela. Eta horrek ondorio oso indartsuak dauzka egunerokotasunean, bai

osasun mentalean eta bai osasun fisikoan».

Mundu mailan puntako ikerketa ugari daude ongizate horren inguruan. Horien arabera, harreman onak ez izatea oso faktore arriskutsua da osasunarentzat, tabakismoaren, obesitatearen edo poluzioaren pare. Harvard Unibertsitatean ere ikerketa zorrotza egiten ari dira 1937. urteaz geroztik. Bertan bizitza on bat izateko gehien eragiten duten faktoreak zeintzuk diren iker-tzen dute. «Gaur egun nabarmentzen duten ondorio nagu-

{ analisisa } **Amagoia Mujika Telleria** Kazetaria

Arrainak ura bezala, guk kultura

ren bizkarraldean, nabaria delako ez dela indartsuena. Ondoen egokitzen dena izan daiteke, ordea.

Darwinen ideiak argitzen saiatu zen Kropotkin eta burla egin omen zioten horregatik. «Bizirauteko elkarrekiko laguntza zeinen garrantzitsua zen nabarmendu zuen Kropotkinek eta gizakiok aurrerapen handienak egin ditugu elkarrekiko laguntza hori ondo garatu dugunean», esan zuen Zubirik.

Zuhaitz bat hazteko ezinbestekoa da basoa. Eta horrela frogatu zen 1977an “Nature” aldizkarian argitaratutako ikerketa batean. Horren arabera, baso jakin batzuetan zuhaitzek lur azpian elkar lotzen dituzten sareak dituzte eta horien bitartez karbonoa partekatzen dute. Alegia, batzuek besteen beharra dauka-

Arrainak ura bezala, pertsonak kultura behar du. Bizitzari zentzua ematea, harreman onak izatea, pozik eta aseta sentitzea osasun adierazle garrantzitsuak dira. Kultura mesedegarria da osasun fisiko eta mentalerako. Ez da uste edo sentsazio bat, ikerketa zorrotzek mahai gainean jarritako ondorioa da.

sietakoa da osasunerako faktore garrantzitsuenetako bat –gene onak izatea baino gehiago– harreman onak izatea dela».

Pentsa, puntako ikerketa horien arabera, 50 urteko pertsona batek 80 urte dituenen zer-nolako osasuna izango duen aurreikusteko kolesterol maila baino adierazle esanguratsuagoa da zer-nolako asetasun maila duen eta zer-nolako harremanak dituen.

Eta horretan guztian, asetasun mailan, harreman onetan, bizitzaren zentzuan, kulturak parte handia dauka. «Ikerketa ugari daude esaten dutenak kultura mesedegarria dela osasun fisikorako eta mentalerako. Beraz, kultura ez da kontsumorako gai soil bat, ez da entretenimendu soilerako gauza bat, askoz gehiago da». Zubiriren esanean, kulturak

osasunean daukan eragina ulertzeko, garrantzitsua da kulturaren rol soziala nola aldatu den ulertzea, «ikargarri aldatu da mendeetan zehar».

Aro Modernoaren aurreko garaian kulturak sekulako garrantzia zeukan integrazio soziala sustatzeko. «Kulturak, arteek, ederra, ona eta egia zena ordezkatzaren zuten, hori zen asmoa. Modernitatearekin hori asko aldatzen da. Esfera horiek –ederra, egia eta ona– bereizi egin ziren eta espezialistak sortu ziren. Horrek askatasun handiagoa ekarri zuen artistarentzat, nahi zuena egiteko askatasun handiagoa eskuratu zuen».

Askatasuna irabaztearekin batera etorri zen deskonexioa, akaso parte ilunxeagoa. Eta garai batean kulturak

egiten zuen zementazio lana ahuldu egin zen. Noski, zementazioa ona bezain txarra izan daiteke, segun eta zementuak non harrapatzen zaituen. «Deskonexioarekin gerta daiteke bizitzaren zentzua galtzea eta anomia agertu daiteke: bizitzeko go-go falta, isolamendua».

Artearen beste esferetako –ederra, egia, ona– erabateko deskonexioa gertatzen denean, kulturak egiten zuen integrazio sozialerako bultzadarekin zer gertatzen da? Kulturak Aro Modernoaren aurreko garaian zeukan integrazio sozialerako bistako bultzada ez da hain nabaria akaso. Baina garbi dago kultura ez dela kontsumorako gaia bakarrik eta jasotzen dugun kulturak gure mundu ikuskeran eragina daukala. Kulturak jendartea josten ja-

rraitzen du, integrazio sozialerako tresna izaten jarraitzen du, lehen bezala orain «egia, ederra eta ona» zer den definitzen jarraitzen du. Film batean zein pertsonaia gustatzen zaigu eta zein ez? Eta zergatik? «Gauza horiek ikasi egiten dira, eta neurri handi batean kulturaren bidez ikasten dira».

Zubirik garbi dauka: «Arrainentzako ura bezala da guretzat kultura. Kontua da ura zerk osatzen duen». Kulturaz inguratuta bizi gara, filmez, abestiz, askotariko sorkuntzez inguratuta bizi gara, horiek dira gure bizitzaren soinu banda eta horiek denek eragina daukate gure mundu ikuskeran.

«Kontua ez da bakarrik zein kultur adierazpide iristen zaizkigun, baizik eta zer harrera egiten diegun horiei.

Jateko orduan ere badakigu gustatzen zaizkigun elikagai guztiak ez direla osasuntsuak. Kulturarekin, berdin. Baina garrantzitsua da horren jakitun izatea».

KULTURA, ELKAR KONEKTATZEKO

Zubirik adibide praktiko bat ekarri zuen mahai gainera, «ondo egindako gauzen» adibide modura. Bartzelonan bada 1978an sortutako helduentzako eskola bat, La Verneda-Sant Marti auzoan. Bertako bizilagunek sortu zuten. «Garai hartan auzoan alfabetatu gabekoen kopurua oso handia zen, batez ere emakumeen artean. Eraikin handi bat hartu eta eskolak antolatzaren hasi ziren».

Eskola horretan martxan jarri zituzten «solasaldi literario dialogikoak» izenekoak. «Ez da edozein solasaldi mo-

Ezkerrean, Arkaitz Zubiri irakasle eta ikertzailea Miramarren, Udako Ikastaroetan. Eskuinean, duela aste pare bat Bilbon kulturaren alde izandako ekimena. Gorka RUBIO - Marisol RAMIREZ | FOKU





ta literatura oinarri hartuta. Formatu jakina dauka. Mundu mailan onenetakotzat hartzen diren liburuak hartu eta partekatu egiten dituzte modu jakin batean: errespetuz eta berdintasuneko elkarrizketen bitartez. Garrantzitsua da hori».

Ekimen hori izan da Harvard Unibertsitateko aldizkarian aipatua izan den Estatu espainoleko lehen ekimena. Datu esanguratsua.

Modernizazio prozesuak arriskuak dituen arren –deskonexioa eta anomia, adibidez–, aukerak ere dezente ditu, batez ere arrisku horiei buelta ematen asmatzen bada.

«Nola? Jendea antola dadila eta kultura bere egin dezala. Erabil dezala kultura bere bizitzarekin lotzeko

eta bere bizitza hobea bihurtzeko. Hori egiten dute Bartzelonako eskola horretan. Literatura erabiltzen dute elkarrekin konektatuta egoteko. Pentsa, medikuek osasun mentaleko arazoak dituzten pazienteei eskola horretara joateko aholkatzen diete, badakitelako osasungarria dela».

Askotariko herritarrak batzen dira La Verneda-Santa Martiko helduen eskolan eta horrek ere bistara ekartzen du errealtate interesgarria. «Profil guztietako jendea batzen da. Ikasketarik ez dutenek ere parte hartzen dute eta iraunkortasunez eginez gero, aukera dute alfabetatzeko».

Aditu batzuen arabera, kultur sozializazioa familiaren baitan eta etxean gauzatzen da eta horrek

Pandemiako neurriek eta murrizketek ez diote bide errazik utzi kulturari. Ekitaldiak antolatu dira utzitako neurrian eta moduan eta herritarrek pozik hartu dituzte.
Jon URBE | FOKU

baldintzatzen ditu bizitza osoko kultur gustuak eta zaletasunak. «Badakigu ezetz. Umetan gertatzen den kultur sozializazioa garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da bizitzan zehar beste espaziotan gertatzen den kultur sozializazio guztia. Eta garrantzitsua da horrek zenbateko iraunkortasuna eta intentsitatea duen. Horrek aukera ematen dio pertsonari baliabideak lortzeko kulturaren espazio horretan».

La Verneda-Sant Martiko helduen eskolan asmatu dute, gainera, itxialdi gogorrean eusten eta bizirik mantentzen. «Pandemian ekimena mantentzea lortu dute. Helduen eskola bati buruz ari gara, gehienak adin handiko pertsonak di-

ra eta espazio horretan elkartzen ziren. Online egitea lortu zuten, nahiz eta gehienek ez zuten sekula bideodei bat egin aurretik. Baina elkartasun sare horri esker lortu zuten guztiek parte hartzea».

Lorpena handia izan da. «Itxialdi handiaren garaian isolamenduari iskin egitea lortu zuten eta kultura bere egitea. Batzuetan eliteentzako bakarrik den kultura, literatura solasaldi horietan bere egitea lortu zuten eta horri esker elkar konektatuta egotea».

Kultura, osasunaren mesedetan. Osasun larrialdira-ko espresuki sortutako adituen mahaitik aparte geratutako kultura, herritarren bizitzak hobetzeko ukendu. Kultura, osasungarri eta sendagarri.

Agur goxoak

Miren Azkarate
Badiola

Batzuk badoaz eta beste batzuk badatoz. Osaba duela hilabete joan zitzaigun eta bigarren haurra hilabete barru izango dut. Bizitzaren legea omen da, batzuei agur eta besteei kaixo esatea. Halaxe tokatu zait niri ere oraingoan. Ezberdina izan da lehenaren kasua, beti bezala tristea izan da bai, baina era berean bere oroi-menezko ekitaldiak umoretik, abestuz eta maite genuen guztion artean (asko gara!) antolatuak izan dira. Eta ezberdina izaten ari da ere bigarrena, oraingo honetan ez bainaiz ni haurdun dagoena, nire bikotea baizik.

Ez nuen sekula imajinatuko guraso izango nintzenik ni neu izan gabe nire haurra erditzen duena, Disney-k eta “Goenkale”-k ez zidaten zirrikiturik txikiena ere eskaini horretarako. Eta hala-ko batean emakume batekin eraiki nuen nire bizi proiektua eta abaniko zabal bat ireki zen nire aurrean. Lehenengo haurra nik ernalduko nuela argi genuen bezala, denborarekin, bigarrena berak ekarriko duela ere adostu dugu. Prozesua oso ezberdina da eta esan behar dudan lehen gauza da luxu bat dela. Hau da, oso zortedun sentitzen naiz alde ezberdinetatik bizi ahal izateaz haziera. Bada-

kit zer den erditze bat eta orain akonpainamenduaren aldea ezagutzen ari naiz, baina beti bestea bizitzen ari den hori oso ongi ulertuz: hasierako gorputzaldi txarrak, ttikiaren lehenengo mugimenduak sentitzea, tripa handituz doan heinean lo okerrago egitea...

Egoera bitxia egiten zait oraindik baina asko gozatzen ari naizenik ezin uka, esan bezala ohikotik kanpo dagoen egoera bat delako.

Pozik nago osabari modu honetan esan diogulako agur eta pozik nago amatasunari horrela esango diodalako kaixo. •

Mendeku txiki bat

Antton Izagirre

Egun hauetan asko hitz egin da kataluniar presoen aldeko indultuaz eta espainiar erregeari, gogo txarrez, bere sinaduraz haiei eman beharreko babesak sortzen dion ezinegonaz. Jolas modura, maltzurkeria apur batek ematen didan argitasunak eraginda, une batez irudikatu dut bere errege jauregiko idatz mahai borobil edo karratuari biraka, zer pentsa, birao-ka, “mekaguenka”, trantze estu horretatik eroso irten nahian bidezidorraren bila. Akordura ekarri ditut beste garai batean, ehunka zinegotzi, alkate, parlamentari... makurrarazi asmoz, gogo txarrez geu ere, konstituzio espainiarrari men egitera behartu nahi gintuzteneko

denborak. Nola, irudimenak akuilaturik, “legeak hartara behartuta” lelo bera erabiltzen genuen bata bestearen atzetik, inposaketa hura salatzeko, duintasuna zapal ez ziezaguten.

Edo espainiar ejerzitoan soldadutza egitera eraman eta espainiar banderari muin egitera behartzerakoan, ataka horretatik agindua osotasunean bete gabe nola pasatu erabakitzeke asmatzen gennituen trikimailuak.

Gauza bera, espainiar bandera udal-tereko balkoietan jartzera behartutako alkateek hura ikusezin egiteko buruturiko saiakerak.

Pentsamendu horietan katramilaturik espainiar erregeak zer bide hartuko

duen jakin-minak arreta piztu dit eta agian harentzat ere irtenbiderik proposena indultuen sinadura “legeak hartara behartuta” egitea litzatekeela pentsatu dut. Baina euskal abertzale disidenteok erabilitako eredu berbera erabiltzeak kontraesan gehiegi sortuko dizkiolakoan, baztertu dut aukera hori.

Orduan etorri zait gogora Madrilgo presidente andereak iradokitako aukera; hau da, indultuak sinatzeari uko egitea-rena eta irribarretxo maltzurra egin dut. Iruditu zait hori litzatekeela nik desio nukeen joera.

Edonola ere, patuak eraginda, mendeku txiki bat izango da. •

SUKALDEKO WIKILIBURUA

Euskarari sukaldaritzan behar duen tornua emateko ekarpen goxoa

Ostalari batek baino gehiagok buruhausteren bat izango zuen karta, menua edo barrako pintxoak euskaraz aurkezteko ahaleginean. Lagunei galdetuta, haiek ere erantzun ziurrik eman ezinean ibiliko ziren, nork bere ustean oinarritutako izenak asmatzen. Aurretantzean, baina, badute izendapen luze horiek izerditu gabe euskaraz emateko erreferentzia bat: Iñigo Esnaola Arbiza lezoarrak abian jarri duen wikiliburua, “Sukaldaritzza liburua”.

Hamazortzi urterekin bukatu zituen Sukaldaritzako goi mailako ikasketak, eta ondoren, hainbat sukaldetan ez ezik, irakaskuntzan ere jarduna da, sukaldaritzza eskolak ematen, jakina. Baita, berak dioenez, ikasten ere, ikasleengandik ikasten baitu.

Herrigintzan ere lan egiten du, pertsonen ongizatea eta eskubideak defendatzen, hala nola euskararen aldeko ekimenean. Eta neurri handian euskararen aldeko ekinbidea da sortu duen wikiliburua, bere pasio bi uztartuta: sukaldaritzza eta euskara.

Umezaro eta gaztaro guztia euskaraz bizi izan ondoren, Donostian giro erdaldunago bat ezagutu zuen, eta hainbat urtetan gauzatu gabe izan duen helburuari joan den urtean heldu zion «behar den moduan». Ikasketak amaitu zituenean ezarri zion erronka bere buruari, uste sendo batean funtsatuta; sukaldaritzaren gaineko edukiak euskaraz sortzeko premia dagoen ustean, hain zuzen. Falta nabarmen bat sumatu zuen eta hala jarraitzen du sumatzen urteak

 **SUKALDARITZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Konfinamenduak eman zion «aukera» baliatuta, hamazortzi urte zituenean bere buruari ezarritako erronkari heldu zion Iñigo Esnaola sukaldari lezoarrak. Sukaldaritzaren gainean idatzi nahi zuen, batez ere euskaraz idatzi. 600 errezeta eta material ikaragarri handia pilatu zitzaizkion, eta wikiliburua abiatu zuen.

igarota. Sukaldaritzaren gaineko euskarazko edukirik bada-go, «baina ez behar lukeen adi-na», eta Hasier Etxeberriak egin zuen kritika bere egin zuen: goi mailako hainbeste euskal sukaldari egonda, nola litekeen euskaraz hain gutxi idatzita egotea, «eta sukaldaritzza kultura bezala planteatzen bada... tristea», dio sukaldari lezoarrak.

Iñigo Esnaola **NAIZ**
Irratiko «Bigarren kafea»
saioan. GAUR8

Bere lana plazaratzeko, Wikipediak horretarako daukan atal bat baliatu du Esnaolak, liburuak modu librean eskaintzeko gunea, eta denen eskura jarri du bere lana. Eskuragarri eta nahi duenak parte hartzeko aukera emanda. Elkarlanerako gonbidapena da, beraz, liburua moldatu edo aldatzeko.

Konfinamendua baino lehenago ekin zion lan horri. Ar-

gazki batzuk bildu eta ideia ontzen hasi eta konfinamenduak eman zion «aukera» baliatu zuen idazketari heltzeko. Idazten zituen errezetak sareetan partekatzen zituen. Hori izan omen zen lanaren «mui-na», eta ondoren lan osoa garatzen joan zen.

SUKALDARITZA LIBURUA

600 errezeta bildu ditu wikiliburuan. «Errazena errezetak izan dira, sukaldaria izanda, eta lehentasuna euskara zen», dio, eta entziklopedia moduko batek izan behar dituen atal guztiak landu nahi zituela. Hartara, osagaien gaineko azalpenak idazten hasi zen: haragiak, arrainak, ongaiak... eta konturatzerako material ikaragarri handia zeukan pila-tuta. Zer egin horrekin guztia-ekin? Lehenengo blog bat sor-tu zuen, baina harekin «erotu» egin zela aitortu du. Orduan



Iñaki Alegria UEUko zuzendari ohiarengana jo zuen, sortutako material hori guztia ez galtzeko zer egin zezakeen galdetzka. Hark gomendatu zion wikiliburua sortzeko.

Hiru liburukik osatzen dute wikiliburua: “Sukaldaritzaren historia”, oraingoz bibliografia baino eskaintzen ez duena; “Errezetak”, hainbat plater kordinatzeko argibideak eta errezeta berriak sortzeko aukera ematen dituen, eta “Sukaldaritzaren liburua”, Esnaolak egin zuen zirriborroa. Orain bertan txertatutako guztia zuzentzen ari da. Hainbat atal ditu “Sukaldaritzaren liburua”-k: teknikak, osagaiak, prestaketak, errezetak, gozogintza, truko eta aholkuak, eta hiztegia.

Errezetak modu ulergarrian azalduta daude, eta denetik dago, errazenetatik landuagoetara, baina kontuan izanda zerbait erabilgarri eta gauzatzen erraza izan behar zuela; beraz, oinarritzko platerak dira nagusi. Errezeta horietako batzuk berak konfinamenduan etxerako prestatutako platerak dira, ondoren zintzilikatu dituenak; adibidez, NAIZ Irratiko “Bigarren kafea” saioan aipatu zuena, kuia plantxan egina, hiru minutuan egiteko moduko plater goxoa.

Teknikak biltzen dituen atalaren helburua sukaldaritzaren profesionalean teknika bakoitzaren aplikatzerakoan kontuan izaten diren irizpide eta prozedura nagusiak azaltzea da. Trukoen eta aholkuen atalak, berriz, gomendio erraz eta praktikoak ematen ditu; esate baterako, arrain fresko kantitatea mahaikideko, eltzekariak erre puntu bat dutenean edo gaziagiak daudenean zer egin eta beste asko.

Idatzi zuen guztia Pako Sodupe Pasaiaiko Udaleko Euska-



ra Zerbitzuko arduradunari pasatu zion zuzentzeko, eta ondoren Xabier Cañasi eta Iñaki Alegriari bidaltzen zien berriak txertatzen joateko. «Nik uste nuen txertatzea Worden egiten denaren antzeko zerbait zela, moztu eta pegatzea, baina ez du horrekin zerikusirik, ez da hain gauza sinplea». Esker ona agertu nahi die biei. Cañasek errezetak txertatzen ditu, eta horiekin batera argazkiak, «nahiz eta bera ere nahiko gizon okupatua izan eta zeregin horrek bere denbora

Wikiliburuaren azala.
Sukaldaritzaren liburua

Ikasketak amaitu zituenean ezarri zion erronka bere buruari, uste sendo batean funtsatuta; sukaldaritzaren gaineko edukiak euskaraz sortzeko premia dagoen ustean, hain zuzen

Irratian Esnaolari entzun zion iheslari politiko ohi batek deitu egin zion. 1997tik hainbat urte gordeta eman zituen eta denbora horretan 200 bat errezeta idatzi zituen

eskatzen duen». Egia esan, ez da lan makala; «gainera, dena aldatzen doa, lehen nahiko eskematiko zegoen eta orain zabalago, eta gero eta errazagoa da bilatzea, barruan kategoriak daude, bata bestearekin lotzeko...». Lan hori guztia boluntarioa da, jakina.

Nahi duenari argazkiak bidaltzeko eskatzen hasi zen, eta inguruko jendea gutxienez bidaltzen hasi omen zaio. Hori du oraingo helburua errezetegi dagoenik; izan ere, Esnaolaren lan eskerga elkarlan bihurtzeko moduan da.

«**KONFINAMENDUKO**» SUKALDARITZA Sukaldaritzaren gaineko euskarazko materialaren urria hizpide, Hasier Etxeberriarekin batera Edorta Agirre aipatu du Esnaolak, biak ere gai hori gehien landu dutenak izaki, baita Josu Urrutikoetxearen “Kartzelako sukaldaritzaren” liburua ere. Horren harira, anekdota bat kontatu du, «anekdo-

ta polita honen guztiaren bueltan».

Zenbait elkarrizketa egin izan dizkiote azken aldi honetan irraturan, eta haien entzule batek, Zizurkilgo iheslari politiko ohi batek, deitu egin zion. 1997tik hainbat urte gordeta eman zituen eta denbora horretan 200 bat errezeta idatzi zituen. «Euskal iheslari hori AEK-ko irakaslea zen eta bazeukan zerbait prestatuta, ikasleei pasatzeko, nonbait, eta orain ikusi behar dugu zer egin errezeta horiekin». Hiztegi aldetik, terminologia desberdinak dituzte, «eta ez dakigu zer egin daitekeen, baina ez dugu besterik gabe hor utziko», azaldu du.

Ostalaritzako profesionalek, sukaldaritzaren maite dutenek, opari polita dute eskura. Tresa praktikoa eta erraz erabiltzeko modukoa. Zalantzarik gabe, ekarpen goxoa egin die Esnaolak euskal sukaldaritzari eta euskarari.

MENU BAT, EHUNKA ARTEAN

Seiehun errezeta ditu “Sukaldaritza liburua”-k eta kopuru hori emendatzeko aukera. GAUR8k horietako hiru aukeratu eta lau mahaikiderentzako menu bat osatu du. Bigarren platera Iñigo Esnaolaren beraren gomendioa da. https://eu.wikibooks.org/wiki/Sukaldaritza_liburua/Errezetak webgunera sartu eta erraza da bilatzen... eta prestatzen. On egin!

LEKAK URDAIAZPIKOAREKIN

Osagaiak: Gatza; lekak: 800 g haririk gabe, eta zatituak; oliba olio birjina: 100 ml; baratxuria: 6 ale xerratuak; urdai gazia: 100 g karratuetan; leka salda: 50 ml.

Prestaketa: Lekak ondo garbitu, hariak kendu eta luzeran erditik moztu, era berean hauek erdibitu. Gatz-ur ugaritan irakiten jarriko dugu. Lekak poliki-poliki gehitu eta 15-20 minutuz egosi. Puntuan daudenean freskatu. Salda gorde. Baratxuriak olioarekin kazola zabal batean sutan jarri, gorritzen hasitakoan urdaiazpikoa gehitu lehenik eta lekak ondoren. Pittin bat salteatu, salda gehitu eta gatzarekin ondu.

Aholkuak: Lekak modu askotan moztu daitezke, kasu honetan luzeran eta zabaleran moztuko ditugu, leka bakoitza 6 zati eginez. Lekaren kolorea mantentzeko bikarbonato pittin bat botatzea badago urari. Kasu horretan alde txarra izango litzateke bitamina batzuk galduko lituzkeela.

AJOARRIERO BAKAILAOA

Osagaiak: Bakailao gezatua: 800 g; oliba olio birjina: 75 ml; baratxuria: 2 ale dadotan; tipula: 1 dadotan; piper berdea: 1 dadotan; madari-tomate naturala: 2, zurituak, hazirik gabe eta dadotan; piper txorizeroa: 4, hidratatua eta haragia xehatua; bakailao salda: 100 ml; gatza.

Prestaketa: Bezperatik piper txorizeroa txorten eta hazirik gabe ur epeletan beratzen jarri edo 5 minutuz egosi. Muturzorrotzarekin mamia karrakatuz kendu, xehatu eta gorde. Bakailaoa kazola txiki batean, ur hotzetan, 2 minutuz irakin. Epeltzen denean, orrietan desegin, azala xehatu eta salda gorde. Beste kazola batean olio eta baratxuria sutan jarri, gorritzen

hasitakoan, tipula eta piper berdea gehitu; erregosita daudenean, tomatea erantsi eta kozinatu dena su baxuan, 20 minutuz. Barazkia gozaturik dugunean piper txorizeroa eta salda pittin bat gehitu ; amaitzeko bakailao orriak eta azala, ondoren, 2 minutuko irakinaldi azkar bat eman, eta ondu.

Aholkua: Bakailaoa gehiegi egosi eta lehortu ez dadin, irakinaldiak laburra izan behar du.

SAGAR TARTA

Osagaiak: Lau errezil sagar; litro erdi esne; dozena erdi arrautza; 200 gramo azukre; 50 gramo irin; banilla makilatxo bat; hostopil orea; azukrea; gurina.

Prestaketa: Crema prestatzeko, lehenik lapiko batean esnea berotzen jarri, banilla makilatxoarekin batera. Bitartean, arrautzen gorringoak ontzi batean jarri. Azukrea ontzira gehitu, eta bost minutuz etengabe irabiatu. Ondoren, irina gehitu eta kontu handiz nahastu. Berotutako esnearen erdia ontzira bota, eta ongi nahastu. Lapikoan gelditu zaigun esnea irakin artean berotu, eta banilla makilatxoa kendu.

Gero, ontzian duguna lapikora irauli, eta bost minutuz irakiten eduki, etengabe nahastuz. Garrantzitsua da tarta prestatzen hastean crema hotza egotea; beraz, denbora batez hozkailuan sartu, eta, bestela, hurrengo egunean hasi tarta prestatzen. Hostopil orea mahai gainean jarri –aurrez irin pixka bat bota–, eta arrabol baten laguntzaz ongi luzatu. Ondoren, labeko molde batean jarri orea, eta gainean labeko paper berezia. Paperaren gainean garbantzuk batzuk jarri, haien pisuaren laguntzaz papera behean manten dadin. Aldez aurretik berotutako labean sartu, 180 gradutan, eta hamar minuturen ondoren atera. Papera kendu, eta moldearen hiru laurdenak kremaz bete. Errezil sagarrak zuritu, bihotza kendu eta erditik moztu, eta, gero, xaflatan moztu. Azkenik, kremaren gainean sagar xafla guztiak bata bestearen jarraian jarri, eta gainetik bi koilarakada azukre gehitu, baita gurin pusketatxo batzuk ere. Ondoren, labe beroan sartu, eta hogeit hamar minutuz eduki 180 gradutan. Atera ostean, komeni da jan aurretik beste hogeit hamar minutuz hozten uztea.



Ezkerretik eskuinera: lekak urdaiazpikoarekin, ajoarriero bakailaoa eta sagar tarta. Sukaldaritza liburua



> ELA gaixotasuna ikertzeko eskaera Bruselan

Jaime Lafitak eta DalecandELA elkarteak «BrusELA Desafioa» bete eta Europako Parlamentuaren aurreraino eraman dute gaixotasunaren aldeko baliabide gehiagoren eskaera.

Joan den ekainaren 11n irten zen Lafita Getxotik. Belaontziz 190 milia nabigatu ondoren, Arroxelara heldu zen 13an. Handik 900 kilometro gehiago egin ditu tandemez Bruselara.



Ez dira egun errazak izan, batzuetan bero handiko etapak izan baitituzte Lafitak eta elkarteko kideek, baita harriz eta hartxintzarrez betetako malda tarteak ere. Hala ere, ez dute amore eman, eta astelehenean heldu ziren Bruselara, hain zuzen ere, ELAren Nazioarteko Egunarekin bat eginez.


Bertan, Europako Batzordeko zenbait ordezkariaren aurrean irakurri zuten manifestua.

> LGTBI+ banderaren aurkako debekua eta haserre uholdea

Haserrea piztu du sare sozialetan UEFAk Municheko alkatearen proposamenari emandako ezezkoak. Ez du baimenduko Allianz Arena estadioa LGTBI+ banderaren ostadar koloreekin argiztatzea Eurokopako Alemania eta Hungariaren arteko norgehiagokan. «Mezu politikoa» helaraztea egotzi dio futbol erakundeak Municheko alkateari. Ohiko partidua batean argiztatu dezake, baina gobernu homofobo bati aurkakotasuna helarazteko denean, ez.



UEFAren ezezkoak errebotea izan du eta Alemaniako zenbait estadio argiztatuko dira ostadar kolorez. Sare sozialetan ere nabaritu da haserrea. EH Bilduko diputatu Bel Pozuetak txio batean dio: «Giza eskubideak ez dira auzi politiko edota erlijiosoak». Bartzelona futbol klubak, Antoine Griezmann futbolariak, Caroline Hansen Chelseako jokalariek eta Amnesty Internationalek ere, besteak beste, deitoratu dute UEFAren debekua.



> Duela 37 milioi urteko sasizaldi espezie ezezagun bi

EHUko Ornodunen Paleontologiako ikertaldeak Zanbrana-ko paisaia subtropikalean orain dela 37 milioi urte bizi ziren ugaztun paleoteridoen (sasizaldien) beste espezie bi deskribatu ditu. Hortzen ezauzgarri atipikoengatik uste dute eremu iberiarreko ingurumen baldintzak Europako erdialdekoen desberdinak zirela.



Espezie horiei *leptolophus cuestai* eta *leptolophus franzeni* izenak jarri dizkiete, Miguel Angel Cuesta eta Jens Lorenz Franzen paleontologoek omenez. Leire Perales-Gogenolak zuzendutako ikerlanaren ingurukoak “Journal of Vermiolate Paleontology” nazioarteko aldizkariako artikulua batean argitaratu dituzte.

**Ainhoa Yera Gil**

UPV/EHUko Bilboko Ingeniaritzako irakasle eta ikertzailea

Koloretako biomarkagailu digitalak

Emozioak adierazi nahi ditugunean, gure gorputzaren seinale fisikoak kontrolatzen saiatzen gara, adibidez, aurpegi keinuak edo aho-tsaren ezaugarriak. Egoera horretan baina, badira modu inkontzienteago batean aldatu ohi diren beste hainbat bioseinale, hala nola bihotz taupadak (elektrokardiograma), izerdia (azalaren erantzun galbanikoa), gorputz tenperatura edo garuneko jarduera elektrikoa (elektroentzefalograma). Zertarako izan daiteke baina ezagutza hau baliagarria?

1938ra jotzen badugu, honekin zerikusia duen lehen asmakizunetako bat aurki dezakegu, Leonarde Keeler eta John Larsonen polizia zereginetan laguntzeko asmatutako poligrafoa, hain zuzen. Gailu honek odol presioa, pulstua, arnasketa eta azalaren konduktibitatea neurtu eta emaitzak paper batean inprimatzen zituen, eta horren ostean datuak interpretatu eta pertsona bat gezurretan ari ote zen ebazten zen. Teknikoki urduritasuna besterik neurtzen ari ez baziren ere, orduz geroztik poligrafoa maiz frogatu moduan onartua izan da epaiketetan akusatatu baten erruduntasunaren inguruan erabakiak hartzeko eta baita intelizientzia agentzietan espioiak agerian uzten laguntzeko. Komunitate zientifikoak eta ustezko hainbat espioiek euren, Aldrich Ames (1985-1991) eta Ana Belen Montesek (1986-2001) kasu, praktika hauek fidagarriak ez zirela frogatu zuten.

Berrikiago, 1995ean Rosalind Picard Informatika ingeniari estatubatuarrak egun adimen artifizialaren barruan garrantzi handikoa den konputazio afektiboaren adarraren hazia jarriko zuen, izen berdineko liburua ("Affective computing") argitaratu zuenean. Informatika, psikologia eta zientzia kognitiboak bezalako diziplinak uztartzen dituen arlo hau giza emozioak ezagutu, interpretatu eta prozesa ditzaketen sistema eta gailuen diseinuari dagokio. Beraz, norberaren eta besteen emozioak ulertu eta prozesatzeko zailtasunak eragiten dituzten nahasmenduetan lagungarria izan daiteke: Autismoaren Espektroko Nahasmena (AEN), Arreta defizitaren eta Arreta galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko asaldura (ADHN), alzheimerra, parkinsona, esquizofrenia e.a. Konputazio fisiologikoak –konputazio afektiboaren azpiar-loa–, aplikazioak erabiltzailearen emozio egoerari buruzko informazioa egokitzeko helburuarekin, bioseinaleak denbora errealean monitorizatzen ditu. Horren bidez, hezkuntza plataforma di-

gitaletako edukien egokitzapena, gomendio sistemak iradokitako edukiak edo gidariei zuzendutako laguntza automatizatua hobetu daiteke.

Bioseinaleak erregistratzeko gailuak diseinatzeko garaian, erronka nagusia erosotasunaren eta doitasunaren arteko oreka mantentzea da, hots, pertsonen ahalik eta traba gutxien eginez erregistratutako seinalearen kalitatea onargarria izatea. Honekin batera, emozioak modelatzeko seinalerik egokienak zeintzuk diren ebaztea ere ez da lan erraza, eta normalean, sentore multzo batez osaturiko sistemak diseinatzeko dira informazio iturri desberdinak eskuragai izateko. Hala ere, helburua sistemak edozein testuingurutan berdin funtzionatzea bada, hots, jantzigarriak izatea, diseinu sinpleekin lan egitea komeni da, pertsonak ziborg-ak bilakatu nahi ez baditugu bederen. Horregatik, gailu jantzigarri konplexuen diseinutik aldenduz, sistema hauek pertsonen eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten gailuetan integratzeko joera berreskuratzen hasi da, esaterako, mugikorrak, ibilgailuetako bolanteak edo periferikoak (saguak, teklatuak, webcam-ak).

Konputazio fisiologikoan oinarritutako sistema hauetan emozio zehatz bat automatikoki detektatzeko bioseinaleak erregistratu ondoren, hauek prozesatu eta azkenik konputatutako hainbat ezaugarriren gainean ikasketa automatikoko teknikak erabiltzen dira. Emozioen adierazle diren biomarkagailu digitalen bilaketa ez da lan erraza, besteak beste, bioseinaleak nabarmenki aldatzen direlako pertsonatik pertsonara eta hortaz, sistema fidagarria izan dadin ezinbestekoa da erabilitako subjektu lagina handia izatea. Dena den, erronka honetarako baliagarriak izan daitezkeen datu base publikoak gero eta ugariagoak dira, DEAP, AMIGOS, ASCERTAIN e.a., bioseinale multzo jakin batentzat emozio desberdinak etiketatuta dituztenak.

Emozioak adierazteko zailtasunak sortzen dituzten nahasmenduetatik haratago, oraindik bide luzea dugu horren hedatuak dauden antsietatea, estresa eta tristura bezalako emozioak normalizatzeko. Anna Llenasen "Koloretako Munstroa" ipuin ezagunean irakur dezakegu protagonista hasieran nahastuta badago ere bukaeran kolorez adierazitako emozio bakoitza bereizi eta dagokion ontzian antolatzen ikasten duela. Modu berean, gure gizarteak pertsonen osasun emozionala ardatz duten sistemak behar-beharrezkoak ditu eta koloretako biomarkagailu digitalen emozioak identifikatzeko erronkan asko lagundu dezakete. •



BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

ONDARRETAKO KARTZELAN, PRESOEN ZAIN

1931ko apirilaren 14an, Errepublika aldarrikatu ondoren, Donostiako Udalean hautatutako zinegotzi berriek Gobernu Zibilera jo zuten Ondarretako espetxean zeuden preso politikoak askatzeko eskatzeko, hurrengo alkate izango zen Fernando Sasiain haien buruan zihoala. Bitartean, Donostiako erdialdean, presoak askatzeko eskatzen zuen manifestazio batek. Egun berean, gaueko hamarretan, askatu zituzten. Ehunka lagun zeuden kanpoan haien zain, eta prentsak hurrengo egunean azaldu zuenez, «(...) espetxeko ateak zeharkatzeko unea zirrargarria izan zen benetan. Askatuak berotasun handiz estutu zituzten (...) Segizioa Donostia aldera etorri zen, biba eta txalo artean». Garibai kaleko errepublikanoen zentzora iritsi zirenean, balkoi batetik, askatu berriek zentroaren kanpoaldean zeuden ehunka lagunei hitz egin zieten beren askatasuna eskertzeko. Ekitaldian Clara Campoamorrek ere parte hartu zuen. Ricardo Martinen argazkian Donostiako herritar talde bat ageri da Ondarretako espetxearen kanpoaldean presoak askatzeko zain; haien artean presoek emazte batzuk ere ageri dira.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



CADIZ Haizea gidari

Trafalgarreko itsasargian, ilunabarretan, jende uholdeak hartzen ditu dunak, txalo artean eguzkiari agur esateko. Zeruertzean, atun-sardak. Aurtengo udan, Cadizeko kostaldean nabigatuko dugu libre, argitasunak eta haizeak bultzatuta.

Eta gainera: Ipar Euskal Herrian eta Gursen, 36ko gerraren aztarnen bila • Dolomiten edertasun izoztua • Arleseko Argazkilaritza Topaketetan...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

